



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

Ebazpena, 2022ko apirilaren 25ekoa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria, zeinaren bidez formulatzen baita Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde-plan Sektorialaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2021eko azaroaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritzak, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren aurrean, Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde-plan Sektorialaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko eskaera osatu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen Lege Orokorrari (3/1998, otsailaren 27koari) eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legeari (21/2013, abenduaren 9koari) jarraikiz.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zaio: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, V. eranskinean dakarren formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Ebazpen honen eranskinean, eraginpeko administrazio publikoen eta kontsulta egin zaien interesdunen txostenen eta proposamenen edukiaren laburpena dago.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki irizitako oharrak egiteko.

Behin txostenak jasotzeko indarreko legerian ezarritako epea bukatutakoan eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (21/2013, abenduaren 9koaren) 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikuluan arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: alternatiba egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko efektu metatzaile eta sinergikoak.

Donostia 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz





Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie, baita haien aldaketei ere, lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta onartu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko eremua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzorua erabilerari.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziazko dokumentuaren edukiaren gainekoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren gainekoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira, eta honako hauek guztiak ikusi: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde-plan Sektorialaren (aurrerantzean, LPS) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismenari buruzko dokumentua formulatzea, ingurumen-ondoreetarako soilik, eta honako baldintza hauen arabera:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

1.1.- Plana egiteko aurrekariak eta erreferentzia-esparrua.

EA Eren eremuan, honako baliabide hauek osatzen dute Plana egiteko erreferentzia-esparrua:

- 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren (3E2030) helburuetako bat da 2030erako handitzea kogenerazioaren eta berriztagarrien ehunekoa elektrizitate-sorkuntzan, azken kontsumoan berriztagarrien kuota % 21era iritsi arte (elektrizitate berriztagarriaren inportazioa barne). Era berean, ekoizpen-helburu gisa planteatzen du kogenerazioaren eta berriztagarrien ehunekoa handitzea elektrizitate-sorkuntzan, eta % 40ra iristea epe horretan.
- Klima Aldaketaren 2050erako Euskal Estrategiak, Klima 2050 (EK2050) izenekoak,

aurrerapausoak eman nahi ditu energia eta erregai fosilak energia berriztagarriekin ordeztzeko; horretarako, helburu hau proposatzen du: energia berriztagarriaren kontsumoa azken kontsumoaren % 40 izatea epe horretan.

Bi estrategiek helburu bera dute, hau da, petrolioarekiko eta erregai fosilekiko mendekotasuna pixkanaka murriztea, eta, horrela, klima-aldaketaren ondorioak mugatzea.

3E2030 Estrategiak honako helburu hauek planteatzen ditu berriztagarrien arabera 2030erako:

Tipologia	Instalaturako potentzia, 2020 ¹	Lortu nahi den potentzia, 2030 ²
Eguzki-energia fotovoltaikoa	60,4 MW	293 MW*
Eguzki-energia termikoa	90 mila m ²	202 mila m ²
Lurreko energia eolikoa	153 MW	733 MW
Itsasoko energia eolikoa	0,26 MW	50 MW
Biomasa-energia	83 MW	111 MW
Energia geotermikoa	22 MWg	250 MWg
Energia hidroelektrikoa	173 MW	183 MW

¹Iturria: «Energia 2020». Energiaren Euskal Erakundea. ² Iturria: LPSren Aurrerapen Memoria (2021eko urria)

* Eguzki-energia fotovoltaikoa: 105,09 MW sare-sorkuntzari dagokio, eta 187,94 MW lehen mailako, bizilekuetako eta zerbitzuetako autokontsumoari. Iturria: Energia Berriztagarrien LPSren Aurrerapen Memoria.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak bere Laugarren Xedapen Gehigarrian ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzak Energia Berriztagarrien Lurralde-plan Sektoriala egiten hasi beharko du. Agindu hori, halaber, 128/2019 Dekretuan, uztailaren 30ekoan, dago jasota. Dekretu horren bidez behin betiko onesten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidaleroak.

Aurrekoa betetzeko, 2021eko martxoaren 30ean, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko martxoaren 22ko Agindua argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari agindu zioten Plan hori egiteko. Agindu horren bidez erabaki zen EAEko energia berriztagarrien Lurralde-plan Sektoriala egiteko prozedura hastea.

Planaren berehalako aurrekari gisa aipatu behar da 2002an Euskadiko Energia Eolikoaren I. Lurralde-plan Sektoriala onartu zela (104/2002 Dekretua, maiatzaren 14koa). Plan horretan, EAEko lurraldea arautu eta planifikatu zen lurreko energia eolikoa garatzeko, eta, guztira, 11 kokaleku hautatu ziren. Hasierako Dokumentu Estrategikoaren arabera (aurrerantzean, HDE), *plan honek garapen eskasa izan du eta ez da nahikoa izan energia-helburu berriak lortzeko lehen adierazitako estrategietan finkatutako energia berriztagarriaren esparruan.*

Gaur egun, Elgea (26,97 MW), Urkilla (32,3 MW), Oiz I (25,5 MW), Oiz II (8,5 MW) eta Badaia (49,98 MW) haize-parkeak daude abian; beraz, 143,25 MW-eko potentzia dago instalatuta guztira. Bestalde, 2009an ingurumen-inpaktuaren aldeko adierazpena egin zen Mandoegin kokatutako proiektu baterako (23,0 MW), baina ez zen gauzatu.

Energia eolikoaren LPSren eremutik kanpo, Bilboko portuko Lucero mendiko parke eolikoa (10 MW) dago martxan. Bestalde, Energia Eolikoaren LPSn jasotako kokalekuetatik kanpo dauden 4 proiekturi buruzko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek aldeko ebazpena jaso dute, aurreikusitako potentzia 38,65 MW izanik guztira: Mañueta (2010), Zierbenako dikea (2010), Larragorri (2011) eta Eskuernaga (2011), oraindik egin gabe daudenak.

Energia berriztagarrien sustapena eta ingurumenaren babesa bateragarri egin ahal izateko Euskal Autonomia Erkidegoan, txiki samarra eta biztanle-dentsitate handikoa izanik, ahalegin handia egin behar da lurraldeak energia berriztagarrien instalazioak jasateko duen gaitasuna ebaluatzeko, horien hedapenaren ondorioz baliabide naturalak ez galtzeko eta biodibertsitatea ez hondatzeko.

1.2.- Planaren eremua eta horizonteak.

Hasierako dokumentu estrategikoak hiru horizonte bereizten ditu Plana egiteko garaian:

- Horizonte fisikoa: Planaren lurralde-eremua da, hots, Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE); hala ere, estatu-eskumeneko itsas ingurunean egon daitezkeen aprobetxamendu-potenzialei buruzko balorazio jakin batzuk ere egiten dira, inolako araudirik ezarri gabe.
- Denbora-horizontea: Plan honen indarraldia mugagabea da, harik eta *berau ordeztuko duen plangintza berri bat izan arte, betiere alde batera utzi gabe balizko aldaketak edo berrikuspenak, programatuak izan edo ez.*
- Horizonte materiala: Plangintzaren xede diren energia berriztagarrien motak dira:

Eguzki-energia fotovoltaikoa	Energia berriztagarria eskala handian ekoizteko instalazioak eta autokontsumoko instalazioak (fotovoltaikoa eta eguzki-energia termikoa) barne hartzen ditu.
Eguzki-energia termikoa	Batez ere autokontsumoari eta energia berriztagarriak dituzten bero- eta hotz-sareei dagokiena.
Energia eolikoa	Energia berriztagarria eskala handian ekoizteko instalazioak eta autokontsumoko instalazioak, mini eolikoak izenekoak, (100 kW-etik beherako potentzia dutenak) barne hartzen ditu.
Energia geotermikoa	Batez ere autokontsumoari eta energia berriztagarriak dituzten bero- eta hotz-sareei dagokiena.
Biomasa	Hemen sartzen dira biomasaren aprobetxamendu elektrikoa, energia berriztagarria eskala handian ekoizteko instalazioen bidez, eta aprobetxamendu termikoa, autokontsumo gisa edo energia berriztagarriekin egindako bero- eta hotz-sareen bidez.
Itsas energia	LPS honek dike, kai-mutur eta kostaldeko antzeko egituretan energia berriztagarria eskala handian ekoizteko instalazioei lotutako olatuen energia du ardatz.
Energia minihidraulikoa	Energia berriztagarria eskala handian ekoizteko lehendik dauden instalazioak (gehienez 10 MW) birgaitzearen eta/edo berrindartzearen ikuspegitik soilik hartzen da kontuan, eta, beraz, baztertu egiten da instalazio berriak egitea.

1.3.- Xedea

Hauxe da Planaren helburu orokorra: *Euskal Autonomia Erkidegoan energia berriztagarriak ustiatzeko kokalekurik egokienak identifikatzea eta hautatzea, EAEko potentzial berriztagarria ahalik eta gehien aprobetxatzeko beharrezkoak diren energia berriztagarriko instalazioen kokapenaren aurreikuspena jasotze aldera. Planaren xedea da, halaber, natura-ondarea zaintzarekin bateragarria delarik, planifikazio hori lurralde antolamendurako politika oso baten barruan sartzea, inplikaturik dauden sektoreen interesak koordinatuz.*

Helburu horrekin batera, printzipio orokor hauek ezarri dira:

- EAEn independentzia energetikoa sustatzea eta bultzatzea, kanpoko lurraldeekiko duen energia-mendetasun handia murriztuz.
- Denboran agorrezinak diren energia autoktonoen erabilera sustatzea.
- Energia-produkzioa dibertsifikatzea EAEn.
- Industria-garapena bultzatzea eta erraztea, energia-kostua murriztuko denez.
- Landaguneetan energia baliatzeko alternatiba sustatzea, baliabide berriztagarria gune horiei baitago gehienbat lotuta, eta hori biztanleak landagunean finkatzeko lagungarria izan daiteke.
- Lurraldea ardaztea eta ekonomia deszentralizatzea.
- EAEko energia-sektorearen karbono-aztarna murriztea.
- Balio-kate berriztagarriak sustatzea EAEn, tokiko enpresek garatutako eta/edo hornitutako teknologiak ezarriz.

1.4.- Planaren irismena eta edukia.

Labur-labur esanda, Planak lurralde-eredu bat ezartzen du EAEn energia berriztagarriak ezartzeko, zeina oinarritzen baita alde zehazten dituen ingurumen-irizpideak eta energia-aprobetxamendu berriztagarriko eremu optimoak gurutzatzean edo erkatzean.

Zonakatzea energia mota bakoitzaren ekoizpen-instalazioei dagokie, turbina edo galdareei, adibidez. Aldiz, instalazio horiekin lotutako instalazio osagarriak, hala nola sarbideak, hesiak, ebakuazio-linea elektrikoak, etab. ez dira zonakatzearen xede izango eta proiektu-mailan egin beharko da horien efektuen balorazioa, hain zuzen ere instalazio osagarri horietako bakoitzaren berariazko xehetasunak zehaztuta daudenean.

Planaren lurralde-azterketan ez da sartzen energia minihidraulikoa (*ez baita instalazio berririk eraikitzea aurreikusten, horietako batzuk birgaitzea baizik; hortaz, ez da eremu optimorik esleitu behar, ezta lurzoru-erreserbak identifikatu behar ere*). Offshore energia eolikoa ere ez da sartzen, energia mota hori Estatuko Administrazio Orokorraren eskumena delako. Hala ere, kontraesana ikusten da Lurralde Ereduaren definizioaren eta «*Energia berriztagarriko proiektuak diseinatzeko, gauzatzeko eta ustiatzeko jarraibideak*» dokumentuaren artean, instalazio berriei buruz diotenari dagokionez.

Autokontsumora bideratutako energia deiturikoak ere (eguzki-energia fotovoltaikoa estalkian, eguzki-energia termikoa, biomasa termikoa, oso entalpia baxuko geotermia eta mini eolikoa) lurralde-azterketatik kanpo geratzen dira; izan ere, lehendik dauden eraikinetan eta eraiki berrietan instalatzen direnez (estalkian edo jarduera ekonomikoak hartzen duen azaleraren mugen barruan), ez da eremu egokirik edo lurzoru-erreserbarik ezarri behar, eta, beraz, uste da horien gaineko eragina ez dela garrantzitsua izango. Azkenik, udal-plangintzaren esku uzten da hiri-lurzoruaren erreserbak ezartzea, horietan biomasa termikoari edo geotermiari lotutako bero- eta hotz-sareak eta industria erabilera bideratutako biomasa elektrikoak instalazioak jartzeko.

Egindako lurralde-azterketaren ondorioz, Planak lurralde-eredu deitzen duena definitu du. Eredu horrek energia berriztagarrien garapena EAEko lurraldeko ingurumen- eta kultura-balioekin bateragarria dela bermatu nahi du.

Ereduaren definizioaren oinarrian dago aurrez identifikatutako energia berriztagarrien motak hartzeko lurraldeak duen ahalmenaren azterketa, kontuan hartutako ingurumeneko, sektoreko edo lurralde-antolamenduko irizpideen arabera: Naturagune Babestuen Sarea (Biotopoak, Natura-parkeak, Zuhaitz apartekoak), Natura 2000 Sarea, korridore ekologikoak eta LAGetako natura-intereseko beste leku batzuk, biosferaren erreserbak, geologia-interesdun lekuak, geoparkeak, Ramsar hezeguneak, ibai-erreserba naturalak, Euskadiko Hezeguneen Inbentarioko hezeguneak, Txingudi Babesteko Plan Berezia, intereseko flora (onartutako Kudeaketa Plana duten espezieak eta

«EAEko flora baskularren zerrenda gorrian Desagertzeko Arrisku Larrian dagoen floratzat hartzen den flora berreskuratzeko planak» izeneko lanean sartuta dauden espezieak), kudeaketa-plana duten fauna-espezie mehatxatuentzako interes bereziko eremuak, Batasunaren Intereseko Habitata, natura-intereseko landare-komunitateak (baso-masa autoktonoak), kultura-ondarea.

Planak gauza bera egin du irizpide sektorialetarako, energia berriztagarriaren erabilerak duen harrera-gaitasuna aztertzen baitu honako lurralde-plan sektorial (LPS) hauetan ezarritako antolamendu-kategoriaren arabera: Hezeguneen LPS, Itsasertza Babestu eta Antolatzeko LPS, EAEko Trenbide-Sarearen LPS, Nekazaritza eta Basozaintzako LPS, EAEko Errepideen Plan Orokorra, Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPS.

Prozesu hori bera egin da energia berriztagarrien erabilera eta indarrean dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde-plan Partzial bakoitzaren antolamendu-kategoriak bateragarri ote diren aztertzen duten lurralde-irizpideekin.

Lurraldean eragina duen aprobetxamendu berriztagarri motaren arabera, aprobetxamendu horietako bakoitzerako lurraldearen potentzial optimoaren azterketaren arabera eta aurreko lerrokatetan adierazitako ingurumen-, sektore- eta lurralde-irizpideen arabera, *Zonakatze hori eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioei aplikatzen diren baldin eta inpaktu handiagoko badute lurraldean, beren eraikuntza-ezaugarrien ondorioz* (tamaina, diseinua, kokapen-lehentasunak, etab.). Zehazki, instalazio hauei: eolikoa, fotovoltaikoa, biomasa, geotermia, itsas energia eta minihidraulikoa.

Irizpide horien arabera, lurraldearen zonakatze hau lortu da eta jaso da LPSren planoetan:

a. Bazterketa-eremuak: baliabide berriztagarri aprobetxagarria egon arren, arestian aipatutako irizpideen arabera energia berriztagarrien garapenari buruzko berariazko mugak edo debekuak dituzten eremuak. Bazterketa-eremuak energia berriztagarrien tipologia hauetarako ezartzen dira: lurreko eguzki-energia fotovoltaikoa, lurreko energia eolikoa, biomasa elektrikoa, entalpia altuko energia geotermikoa, itsas energia eta energia minihidraulikoa.

b. Eremu optimo garbiak: energia berriztagarriaren aprobetxamendurako nahikoa baliabide izateaz gain, garatzeko inolako mugaketarik ez duten lurralde-eremuak, eremu horietan ez dagoelako bateraezintasunik ingurumen-kudeaketako bitartekoekin, ezta plangintzako eta lurralde-antolamenduko bitartekoekin ere, Planean ezarritako irizpideen arabera. Eremu optimo garbi horiek energia berriztagarria eskala handian ekoizteko instalazioei aplikatzen zaizkie, baldin eta instalazio horiek baliabide berriztagarria aprobetxatzeko berezko ezaugarriak dituztenez, kokapen-baldintza jakin batzuk betetzen badituzte: lurreko eguzki-energia fotovoltaikoaren aprobetxamendua, aprobetxamendu eolikoa eta itsas energiaren aprobetxamendua.

Aprobetxamendu eolikorako eremu optimo garbien kasuan, Planak bi maila bereizten ditu:

- **1. mailako kokalekuak:** aprobetxamendu-maila optimoa duten kokalekuak dira, hau da, eremu horietan haizearen batez besteko abiadura 7,2 m/s-koa edo handiagoa da 100 m-ko altueran, edo, hori bete ez arren, urteko funtzionamendu-orduak 3.350 badira. Guztira, 1. mailako 9 kokaleku identifikatu dira eta «*gaur egun aztertzen ari diren*» beste bi kokaleku. Ez da horiei buruzko xehetasun gehiago ematen, baina Planaren kartografian daude.

Eremuaren zk.	Izena	Haizearen abiadura 100 m abatzean (m/s)	Luzera (Km)	Eragindako azalera (km ²)
1	Kolitz-Garbea	7,36	2,46	0,33
2	Parda-Argalarrio	7,44	1,45	0,19



3	Ganekogorta	7,34	6,04	0,81
4	Jata-Burgoa-Sollube	7,35	8,20	1,10
5	Galarregi-Illuntzar	7,25	0,42	0,056
6	Mandoegi	7,49	6,89	0,91
7	Arlaban	7,25	4,34	0,57
8	Azazetako mendatea	7,48	4,58	0,61
9	Labraza	7,39	9,62	1,29
GUZTIRA			44,02	5,906

1. mailako eremu eolikoek ezaugarriak, haizearen batez besteko abiadura 100 m-ko abatz-altueran, lerrokaduren luzera eta eragindako eremua. (Iturria: Memoria. (Energia Berriztagarrien LPSren aurrerapena).

Ez da kalkulatu lerrokadura horiekin zer guztizko potentzia lortuko litzatekeen.

- **2. mailako kokalekuak:** Eremu horietan haizearen batez besteko abiadura 7,2 m/s eta 6,22 m/s artekoa da 100 metroko altueran, edo, hori bete ez arren, urteko funtzionamendu-orduak 2.650 baino gehiago badira. Instalazio hori garatzeko, aerosorgailu efizienteagoak izatea ahalbidetuko lukeen teknologia hobetu beharko litzateke. Bereziki nabarmendu behar da Guardiako Eremu Funtzionala oso egokia dela 2. maila honetako kokalekuetarako. Planaren zirriborroaren arabera, «Haizearen batez besteko abiaduraren muga jaistean gehituko liratekeen eremu berriak enkante-sistematik kanpo bideragarriak izan litezke, eta, beraz, ez dira baztertu behar etorkizuneko garapen eolikoetarako».

LPSren zehaztapenekin bat etorritik, energia berriztagarria eskala handian ekoizteko instalazioak «eremu optimo garbietan» ezartzea LPS indarrean jartzen denetik zuzenean aplikatu beharreko erabilera edo jardura onargarritzat jotzen da, eta ez da beharrezkoa inolako hirigintza-plangintzaren bidez garatzea, lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa edozein izanik ere.

c. Lurraldearen gainerako eremua: Aurreko kategorietan sailkatu ez diren eremuak dira; eremu horietan energia berriztagarria eskala handian ekoizteko instalazioen ezarpena jardura edo erabilera onargarria izango da udalaren hirigintza-plangintzak galarazten ez duen eremuetan. Esparru honetan «eremu baldintzatuak» sartzen dira. Baldintzapeko eremu horietan ingurumen-kudeaketako eta lurralde-plangintzako eta -antolamenduko tresnek ez dute berariaz debekatzen aprobetxamendu energetiko berriztagarria gauzatzea, baina baldintza jakin batzuk bete behar dira aprobetxamendu hori onargarria izan dadin.

Adierazi behar da ingurumen-, sektore- eta lurralde-irizpideak aplikatzeaz gain, aprobetxamendu eolikorako eremu optimo garbiak identifikatzeko garaian irizpide hauek hartu direla kontuan:

- Zenbait kasutan jendea bizi den guneekiko gutxieneko distantziak gordetzea, baina ez da zehazten zein den distantzia hori.
- Eremu optimo garbietatik kanpo utzi dira gaur egun parke eolikoak instalatuta dituzten eremuak.
- Gailurrak aprobetxatzea, eta ez mendi-mazelak, instalazioaren konplexutasunagatik eta baliabidearen erabilera optimizatzeagatik.

Eguzki-energia fotovoltaiakoaren aprobetxamenduaren kasuan, irizpide hauek aplikatu dira:

- Lurzoru urbanizaezina, beste mota bateko lurzoruak baztertu gabe egoera berezietan, hala nola ekonomia-jarduerako lurzoruak dauden kokaleku batzuk.



- % 15eko baino gutxiagoko aldapa.
- Hegoaldera begira.
- 3 km-tik beherako distantzia lehendik dauden ebakuazio-azpiegitura elektrikoetara.
- Azalerak > 6.000 m².

Itsas aprobetxamenduari dagokionez, HDEk dioenez, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak diren euskal itsasertzeko portuetako kai-mutur onuragarrietara mugatzen da: guztira 12 portu identifikatu dira mota horretako aprobetxamendurako eremu potentzial gisa: Getxoko kirol-portua, Plentzia (olatu-horma), Armintza, Bermeo, Mundaka, Elantxobe, Lekeitio, Ondarroa, Zumaia kirol-portua (olatu-horma), Getaria, Orioko kirol-portua (olatu-horma) eta Hondarribia.

Azkenik, Planaren zirriborroan adierazten denez, lortutako zonakatzeko hori eraginpeko udalerririk bakoitzaren hirigintza-araudian sartu beharko da, EAEn lurreko energia berriztagarria (eguzki-energia fotovoltaikoa, energia eolikoa eta itsas energia) ezartzeko lurzoru-erreserba optimoak sortzearren.

Nolanahi ere, esan behar da zonakatzeko horrek ez dituela proiektu zehatzak salbuesten ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren izapidea eta aplikatzekoak diren gainerako izapide sektorialak betetzetik, hala badagokio.

1.5.- Alternatibak.

Politika aktiboen agertoki batetik abiatuta, plangintza estrategikorako lau alternatiba balioetsi dira, eta «B.4: B3 + hainbat teknologia dituzten eta energia berriztagarria eskala handian ekoizten duten instalazioen mixa» izenekoa hautatu da. Alternatiba horrek aurreko hirurak biltzen ditu, hau da, B1 (berrindartzea), B2 (B1+ teknologia heldua duten ekoizpen-instalazioak) eta B3 (B2+ autokontsumoa eta bero- eta hotz-sareak + gaur egun garatzen ari diren teknologiak bultzatzea).

B4 agertokia oinarritzat hartuta, zonakatzeko irizpideei buruzko lau alternatiba balioetsi dira:

0 alternatibaren edo Joera Agertokiaren azterketak esan nahi du egungo agertokiari eutsi behar zaiola, non energia-garapen berriztagarria merkatuaren eta teknologien aurrerapenaren arabera garatzen den, erakundearen sustapenik gabe eta energia berriztagarriak bultzatzeko eta arautzeko berariazko politika energetikorik gabe.

Agertoki horren aurrean, politika aktiboen agertokia aurreikusten da. Agertoki hori dago jasota Planean eta horrek *bultzatzen du energia berriztagarrien garapenaren sustapen aktiboa EAEko ekonomiaren deskarbonizazioa eraginez eta, aldi berean, kanpoko energia-mendekotasuna murriztuz, eta, horrela, EAEko energia-estrategiaren funtsezko ardatzetako bat gauzatzen da.* Gainera, agertoki horren barnean beste alternatiba batzuk proposatzen dira. Alternatiba horiek honela laburbildu daitezke:

- 1. alternatiba: desarrollista
- 2. alternatiba: jasangarria
- 3. alternatiba: kontserbazionista

Alternatiba horietako bakoitzaren barnean agertoki batzuk proposatzen dira; agertoki bakoitzak energia berriztagarriak ekoizteko helburu estrategikoei egiten dien ekarpena eta berotegi-efektuko gasak (BEG) murrizten zenbateraino laguntzen duen aztertu da.

Azkenik, azterketa argudiatu baten ondoren, eta hasierako dokumentu estrategikoarekin bat etorriz, LPSk B.4.2 izeneko alternatiba garatu du. Alternatiba hori *EAEn energia berriztagarriak indartzeko, bultzatzeko eta sustatzeko politika aktiboen agertoki bat da, bai autokontsumoari buruzko politikak, bai industria-instalazio berriztagarriei buruzkoak, hainbat teknologia barne hartuta, bai teknologia helduenak, bai garatzen ari direnak, ekonomikoki eta energetikoki*

efizienteak izateko, eta, aldi berean, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatzeko esparru horretan, lurraldearen antolamendu jasangarria, koherentea eta integratua eginez.

2. Aplikatzekoak diren ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasuneko printzipioak eta irizpideak

Arestian adierazi denez, Plana Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko urtarrilaren 21eko 4/2019 Legean xedatutakoaren arabera formulatu da. Lege horrek laugarren xedapen gehigarrian adierazten du Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Energia Berriztagarrien LPS egin beharko duela. Era berean, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartzen dituenak, Energia Berriztagarrien LPS egin behar dela ere ezartzen du. Plan honek helburu orokor hau du: *EAEn energia berriztagarria aprobetxatzeko gune egokiak identifikatzea eta zehaztea..., kultura-ondarea zaintzarekin bateragarri dena, planifikazio hori lurralde antolamendurako politika oso baten barruan sartzea, inplikaturata dauden sektoreen interesak koordinatuz.*

Testuinguru horretan, ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen oro har onartzen diren araudi, estrategia eta programetatik datozen ingurumen-helburuak; horiek Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2018ko azaroaren 13ko Ebazpenaren D) apartatuan adierazten dira. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen da. Apartatu horretan, LAGetatik eratorritako plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluaziorako gidalerro orokorrak ezartzen dira, eta ebaluazio hori zuzendu behar duten helburuak, printzipioak eta irizpideak formulatzen dira.

Gainera, kontuan hartu beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legean ingurumena babesteko jasotako helburuak, printzipioak eta zehaztapenak; bi kasuetan, arestian aipatutako Ebazpenaren ondoren onartu dira. Era berean, planifikatu beharreko xedearen arabera, kontuan hartuko dira klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen printzipio gidariak eta plangintza-helburuak, bereziki 21.2 artikuluan adierazitakoak, baita Energia eta Klimaren 2021-2030 Plan Nazional Integratuan adierazitakoak ere.

Era berean, aintzat hartu beharko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak sustatutako 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren ingurumen-ebaluazio estrategikoan jasotako jasangarritasun-irizpideak, *Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2016ko uztailaren 4ko Ebazpenaren bidez, zeinaren bidez formulatzen baita 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren ingurumen-adierazpen estrategikoa.*

Onartu berri diren beste dokumentu hauetako helburuak eta printzipioak ere kontuan hartu beharko dira:

- Azpiegitura berdearen eta konektagarritasun eta leheneratze ekologikoen Estrategia Nazionala.
- Europar Batasunaren Biodibertsitateari buruzko Estrategia, hemendik eta 2030era bitartean.
- Espainiako nekazaritza- eta estepa-inguruneen lotutako hegazti mehatxatuak kontserbatzeko Estrategia.

Planak, legeriatik eta adierazitako ingurumen-programetatik eratorritako printzipioak biltzen dituen heinean, ingurumen-izaera ere baduten helburuak planteatzen ditu, batez ere berotegi-efektuko gasen murrizketarekin eta klima-aldaketara egokitzearekin lotutakoak. Hala eta guztiz ere, LPSren eremua eta aurreikusten diren plana garatzeko jarduerak eta instalazioak antolatzeko erabilera-erregimen bat garatzeak efektu kaltegarriak izan ditzake ingurumenean, eta hori prebenitu, zuzendu edo gutxitu egin beharko da.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen-aldetik garrantzitsuak diren eremuak.

Planaren eremu geografikoa Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldea (EAE) da.

Planaren lurralde-eremuan bereziki garrantzitsuak diren esparruak daude, haien natura-balio bikainak, kultura-balioak, edo gaur egungo zein etorkizuneko gizakien osasunerako eta ingurumenerako dituzten arriskuak direla-eta.

Aipatutako lehenengo guneen artean daude Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legea (42/2007, abenduaren 13koa) aplikatzetik eratorritako ingurumena babesteko araubideren bat dutenak. Lege hori natura kontserbatzeko eta ondare naturala eta biodibertsitatea babesteko alorrean oinarritzko legeria da. EAEko natura-ondarea kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legeak, bestalde, naturagune babestuen EAEko katalogoa garatzen du IV. tituluko II. kapituluan. Orobat, ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremutzat hartu behar dira Plan Hidrologiko Nazionalari buruzko uztailaren 5eko 10/2001 Legearen gerizpean babestutako ibai-espazioak.

Azken batean, babes-kategoria horren barruan daude energia berriztagarriko instalazioak eta horiei lotutako azpiegiturak ezartzeko eremuak hautatzeko ingurumen-azterketan kontuan hartu behar diren eremu eta elementu hauek:

- Parke naturalak, bai gaur egun deklaratu daudenak, bai Baliabide Naturalak Antolatzen Plana hasteko agindua dutenak: Uribe-Kosta-Butroe ingurua (2012ko irailaren 25eko EHAA) eta Gasteizko mendiak.
- Erreserba naturalak
- Biotopo babestuak.
- Monumentu naturalak, zuhaitz eta baso bereziak, mikroerreserbak eta interes geologikoko lekuak barne.
- Paisaia natural babestuak, hau da, beren balio natural, estetiko eta kulturalengatik babes berezia merezi duten lurralde-zatiak.
- Natura 2000 Sarea (Batasunaren Garrantzizko Lekuak, Kontserbazio Bereziko Eremuak eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak).
- Nazioarteko hitzarmen eta akordioetan ezarritakoaren arabera formalki izendatutako naturaguneak eta, bereziki, hauek:
 - Ramsar hezeguneak.
 - Urdaibai Biosfera Erreserba.
 - Euskal Kostaldeko Geoparkea.
 - Erreserba hidrologikoak.
- EAEko azpiegitura berdea osatzen duten funtzio anitzeko eta natura-intereseko beste leku batzuk, LAGetan identifikatuak; Natura 2000 Sarearen koherentzia ekologikoa eta konektibitatea hobetzeko plangintzak definitutako korridore ekologikoen sarea; eta basoko faunako eta florako espezieen populazioen migrazioarako, banaketa geografikorako eta elkartruke genetikorako oinarritzkoak diren edo funtsezko garrantzia duten paisaia-elementuak eta lehorreko zein itsasoko guneak. Lehorreko faunarentzako eta fauna urtarrarentzako korridoreez gain, aireko korridoreak ere kontuan hartu beharko dira; hala, kontuan hartuko dira, gutxienez, LAGetan eskualde-mailan identifikatutakoak baita lurralde historikoaren mailan identifikatutakoak ere (Arabako Lurralde Historikoko Konektibitate Ekologiko-Paisajistikoaren Estrategia; Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarea planifikatzeko diagnostikoa. 2019. urtea).

Gainera, kontuan hartu beharko dira ingurumen-balio nabarmenak dituzten beste eremu batzuk, katalogo eta inbentario hauetan jasota daudenak edo etorkizunean jaso daitezkeenak:

- Eremu kritikoak eta arriskuan dauden flora- edo fauna-espezieak hedatzeko interes bereziko eremuak, Espezie mehatxatuen EAEko Katalogoan sartuta daudenak (kasuan kasuko kudeaketa-planetan definitutako interes bereziko eremu guztiak barne hartuta), baita «EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian Desagertzeko Arrisku Larrian dagoen floratzat hartzen den flora berreskuratzeko planetan» identifikatutako babes-eremuak ere; halaber, kontuan hartuko dira flora-espezie mehatxatu kartografiatuen kokaleku ezagun guztiak (geoEuskadiren bidez eskuragarri). Egoera horretan bertan aintzat hartu beharko dira EAEko Kiropteroak Kudeatzeko Planak kiropteroentzako proposatutako babeslekuak eta lehentasunezko eremuak, estepako hegazti kalteberentzako garrantzi bereziko eremuak eta Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planean jasotako interes bereziko beste eremu batzuk.
- EAEko Basoen Inbentarioan jasotako baso naturalak eta erdinaturalak.
- EAEko lurralde historikoetako foru-arauen babesean aitortutako onura publikoko mendiak.
- Beren paisaia-balioagatik katalogatutako eremuak, honako hauen arabera: EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen katalogoa, Paisaiaren Katalogo eta Gidalerroak, eta Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoa.
- EAEko Geologia Interesdun Lekuen Inbentarioan dagoeneko bildu diren gunekak.
- EAEko Hezeguneen Lurralde-plan Sektorialean jasotako beste hezegune batzuk, babes bereziko eremuetatik kanpo (LPSren I. multzoa). Beharrezkotzat jotzen da II. multzoko hezeguneetarako hasierako dokumentuan aurkeztutako zonakatzea berrikustea.
- Batasunaren intereseko habitatak dituzten eremuak (92/43/EEE Zuzentarauaren I. eranskina), bereziki lehentasunezko habitatak, Natura 2000 Sarearen barrukoak edo kanpokoak, eta eskualde-intereseko habitatak (EUNIS habitat-kartografian identifikatutakoak, 2019. urtea, geoEuskadi).
- Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan ezarritako hegazti mehatxatuentzako beste gune interesgarri batzuk. Agindu horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta abifaunaren babes-eremuak –non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatze edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitziren– argitaratzen dira.
- Hegaztiak eta Biodibertsitatea Kontserbatzeko Eremu Garrantzitsuak (IBAk).
- EAE zeharkatzen duten migrazio-ibilbideak eta horien ugalketa-, elikadura- eta atsedene-eremu nagusiak.

Halaber, ingurumenaren aldetik nabarmenak dira nekazaritza-balio handiko lurzoruak, baita aurretik zerrendatutako eremuen artean ez dauden beste batzuk ere; esate baterako, Kantauri Ekialdeko, Kantauri Mendebaldeko eta Ebroko Demarkazio Hidrologikoen Plan Hidrologikoetan ezarritako Eremu Babestuen Erregistroan (EBE) sartzen diren beste eremu batzuk, EAERI dagozkionak, baita lurralde- eta hirigintza-plangintzatik eratorritako babes-araubideren bat duten naturaguneak ere, esaterako, Txingudiko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatze Plan Bereziak antolatutako eremuak.

Kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremuen artean, kultura-ondarearen zati direlako kalifikatutako eta inbentariatutako eremuak edo ondasunak daude, baita ustezko arkeologia-eremuak ere; arlo horretan eskumena duten erakundeek jasotako erantzunen arabera, kalifikatutako kultura-ondasunen nabarmentzekoak dira Donejakue Bidea eta *ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuaren, Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun,*

monumentu-multzo kategoriarekin kalifikatzeko denaren gerizpean babestu beharreko kultura-elementuak.

Ingurumen-arrisku garrantzitsuen eraginpean dauden eremuak dira, besteak beste, 10 eta 100 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua duten eremuak, baita 500 urteko errepikatze-denborakoa dutenak, eremu higagarriak edo higitzeko arriskua dutenak, kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dauden edo egon diren lurzoruak eta akuiferoak kutsa ditzaketen eremuak ere. Horiei gehitzen zaizkie baso-suteak izateko arrisku handia duten eremuak, arrisku sismikoa dutenak eta arrisku teknologikoak dituztenak (salgai arriskutsuen garraioa, SEVESO III arriskua).

Plana egiteko, kontuan izan behar dira aipatutako garrantzi desberdineko eremuak, baita ingurune fisikoa zuzenean eraldatzen duten jarduketak garatzeko horietatik eratortzen diren baldintzatzaileak ere.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak

Hasteko, ingurune fisikoan efektuak dituzten jarduketak kokatzeko eremu desegokitzat joko dira hauek: aurreko apartatuan jasotako ingurumen- eta kultura balio garrantzitsuak dituzten eremu guztiak, baita beste hainbat eremu ere, non erabilera edo neurri jakin batzuk –Planeari aurreikusitakoekin pareka daitezkeenak– mugatu edo debekatzen baitituzte dagozkien lurralde-plangintzak eta plan sektorialak –LAG, eremu funtzionalen LPP, hezeguneen LPS, nekazaritza eta basozaintzako LPS eta ibaiertzak eta errekek babestu eta antolatzeako LPS–, baita Natura 2000ko eremuei edo beste eremu batzuei lotutako beste arau-xedapen batzuk ere: Baliabide Naturalak Antolatzeako planak eta Parke Naturalen (eta Biosfera Erreserbaren) Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeako planak; eremu babestuetako plan bereziak; Natura 2000 Sareko gunek izendatzeko Dekretuak eta espezie mehatxatuak kudeatzeko planak.

Ilido horretan, eta bereziki lurreko energia eolikoa eta fotovoltaikoa garatzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak espediente honi buruz egindako txostena nabarmendu behar da. Txosten horretan jakinarazten da Zuzendaritza horrek GIS tresna bat prestatu duela energia berriztagarrien (eolikoa eta fotovoltaikoa) garapena ez ezik, horiek EAEko Natura Ondarea kontserbatzearekin bat ote datozen ere aztertzeako, «*Laguntza teknikoa energia eoliko eta fotovoltaikoen garapena aztertzeako eta lan osagarriak egiteko, EAEko 2020-2021 aldiko Natura Ondarearen kontserbazioarekin bat etor daitezzen*» izeneko lanaren barnean. Horri dagokionez, eta jarduketak kokatzeko eremu desegokiak identifikatzeari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da, aipatutako txostenarekin bat etorritik, lan horretako *1. blokea («Parke eoliko eta fotovoltaikoen eragindako inpaktuak eta ingurumen-zonakatzeari proposamena» –6. eta 7. apartatuak– izapidetzen ari den LPS honen dokumentazioan txertatzea, lurralde-eredu sektoriala osatzeko oinarri gisa, baita dagokion ingurumen-ebaluazio estrategikoan txertatzea ere*. Bereziki, tresna horretan azaltzen diren gehieneko ingurumen-sentikortasuna duten inguruneak eta sentikortasun oso handia dutenak hartuko dira kontuan.

5. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan behar du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorritik, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko hau bete behar dute:



5.1. Proposatutako Planaren deskribapena

5.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

5.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

5.1.3. Plangintza-alternatibak

5.2. Ingurumenaren ezaugarriak

5.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

5.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

5.3. Ingurumen-efektuak

5.3.1. Natura 2000 Sareko guneetan izan daitekeen eraginari buruzko balorazioa

5.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

5.5. Ingurumena zaintzeko programa

5.6. Ingurumen-laburpena

5.7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da Azterketak hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

5.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzakeen efektu kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

5.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Zehaztuko da zer arau-esparruk arautzen duen Plana onartzeko prozedura, eta identifikatuko da nor den behin betiko onespeneren organo sustatzailea eta organo substantiboa.

b. Identifikatuko da ea zer plan edo programa dauden hierarkikoki planaren gainetik, zeinen helburu eta zehaztapenak haren bidez garatzen baitira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Hierarkian Plana baino goragoko planak edo programak onartzeko egintzaren eta dataren erreferentzia emango da, eta plan edo programa horiei ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin zaien ala ez zehaztuko da; hala bada, plan edo programa horien ingurumen-adierazpen estrategikoan ezarritako irizpideak eta zehaztapenak jasoko dira, Planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak direnak.

Halaber, kontuan hartu beharko dira, gutxienez, honako arau, plan edo estrategia hauetatik datozen ingurumen-zehaztapenak eta -helburuak:

- 7/2021 Legea, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa.
- 2021-2030 aldirako Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratua. Justifikatuko da Planak nola erantzuten dien *2021-2030 aldirako Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen duen Ingurumenaren Kalitate eta*



Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko abenduaren 30eko Ebazpenean ezarritako ingurumen-zehaztapenei.

- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia.
- Euskadiko Energia Estrategia 2030. Hau justifikatu beharko da: Planak nola erantzuten dien aipatutako estrategiaren i. eranskinean jasotakoari, baita *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak sustatutako 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen duen Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2016ko uztailaren 4ko Ebazpenaren D)* apartatuan jasotzen diren Energia Estrategiaren ondoriozko planen eta proiektuen ingurumen-ebaluaziorako gidalerro orokorreire. Azterketan jasoko dira iturri berriztagarrietatik energia sortzeko 2030erako helburuak, aipatutako estrategian ezarritakoak, baita estrategia horretan txertatutako ingurumen-helburuak ere, energia berriztagarrien hedapen jasangarria, EAEko lurraldearen harrera-ahalmenera egokitua, bermatzeko. Instalatutako potentzia errearen datuak eguneratu egingo dira Azterketaren bertsioetan.
- 2030erako EAEko Biodibertsitate Estrategia.
- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG); *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen duen 2018ko azaroaren 13ko Ebazpenaren (Ingurumen Administrazioko zuzendariarena) D)* apartatuan ezarritako zehaztapenak hartuko dira kontuan, eta, bereziki, ingurune fisikoaren antolamenduari lotutako zehaztapenak, azpiegitura berdea eta eskualde-mailan definitutako korridore ekologikoen sarea osatzen duten elementuak barne.
- EAEko Eremu Funtzionalak Lurralde-plan Partzialak, LPP horietako batzuetan ageri diren Paisaiaren Zehaztapenak barne.
- Hezeguneen Lurralde-plan Sektoriala.
- Itsasertza Antolatze LPS.
- EAEko ibaiak eta errekek antolatze Lurralde-plan Sektoriala.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde-plan Sektoriala.
- EAEko Demarkazio Hidrologikoen Plan Hidrologikoak eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak (Kantaurikoak eta Ebrokoak).
- Natura 2000 guneei¹ edo beste eremu babestu batzuei lotutako beste xedapen arautzaile batzuk: Baliabide Naturalak Antolatze LPSak eta Parke Naturalen (eta Biosfera Erreserbaren) erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak; gunen babestuen plan bereziak; Natura 2000 Sareko gunek izendatzeko dekretuak eta espezie mehatxatuak kudeatzeko planak,

Bestalde, eta eraginpeko administrazioei eta herritar interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenen arabera, eguneratu egin behar dira LPSren Aurrerapen Dokumentuan azaltzen diren plan sektorial batzuei buruzko aipamenak: Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra (EAEEPO), maiatzaren 19ko 63/2020 Dekretuaren bidez onartu zena eta gaur egun indarrean dagoena, eta Bizkaiko Errepideen II. Lurralde-plan Sektoriala, 2023. urtean indarrean jartzea aurreikusita dagoena. Jabari publikoko eremuetarako, zortasun-eremuetarako eta eragin-eremuetarako ezartzen dituzten jabetza-mugak kontuan hartu behar dira Energia Berriztagarrien LPSn.

¹ [34/2015 DEKRETUA, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden kontserbazio bereziko eremuetarako \(KBE\) eta hegaztien babes bereziko eremuetarako \(BBE\) arau orokorrak onartzen dituena.](#)

c. Azterketan, laborpen txiki bat jasoko da Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Gainera, Azterketak labor-labor jaso beharko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatu bitartean, Ebazpen honetako 2. apartatuan jaso diren ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipioak eta -irizpideak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak era espezifikoa justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen arestian azaldutako ingurumen-helburuak eta zein ekarpen egiten dion proposatzen dituen erabileren erregimenetik eta egiturazko edo bestelako neurrien ondorio negatiboak murrizteari; hori guztia LPSren ezaugarriak antolatzeke dokumentu baten berezko xehetasun-mailarekin.

Printzipio gidari gisa, bermatu beharko da energia berriztagarriak lortzeko helburuak lortuko direla ahalik eta ingurumen- eta ondare-kostu txikienarekin, biodibertsitatea galtzeari edo natura-, paisaia- eta kultura-ondareko elementuak galtzeari edo aldatzeari dagokionez. Horri lotuta, Azterketak balioetsi behar du Planak nola integratzen dituen aipatutako helburuak, eta, hala badagokio, EAEn energia berriztagarriak garatzeko neurri edo estrategia osagarrien azterketa proposatu behar du, lortu nahi diren ekoizpen-helburuak ahalik eta ingurumen-kostu txikienarekin hobeto doitu ahal izateko.

Horri dagokionez, eta eraginpeko administrazioei eta herritar interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenen arabera, kontuan hartu beharko litzateke txikiagoak diren, baina, oro har, balia bidea oparo eman dezaketen instalazioetan ekoizteko aukera. Horretarako, lurraldean eskala txikiagoko instalazioak, hala nola instalazio eolikoak eta fotovoltaikoak, kokatzeari buruzko zehaztapenak sartu beharko lirateke hirigintza-plangintzan aplikatzeko; adibide gisa, honako hauek aipa daitezke: 2 eta 4 aerosorgailu arteko instalazio eolikoak edo LPSn aurreikusitako azalera baino azalera txikiagoko eguzki-baratzeak ezartzea, erreferentzia gisa abenduaren 9ko 10/2021 Legeak, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoak, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura bete behar duten proiektuetarako mugak erabiliz.

Ilido beretik, Planari zehaztapenak eta gidalerroak eranstea proposatzen da, hirigintza-plangintzan kontuan har daitezkeen, lehendik dauden estalkietan energia fotovoltaikoa ezartzeari dagokionez, edo energia minieolikoa edo lurzoru naturalaren kontsumoa ez dakarten beste batzuk ezartzeari dagokionez, baita autokontsumoa eta baso-biomasatik abiatuta energia eskala txikian ekoiztea bultzatzera eta sustatzera bideratutako beste batzuk ezartzeari dagokionez ere.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta estrategietan, baita Planarekin hierarkia-harremanik ez duten eta beste eremu batzuetakoak diren beste plan eta programa batzuetan ere (Europar Batasunekoak, Espainiako Estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), Plana diseinatzeko aplikagarriak direnean.

5.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

Oro har, apartatu honetan eduki hauek garatuko dira:

a. Planaren aurreikuspenak deskribatuko dira, planifikatu beharreko energia berriztagarrien motei eta kasu bakoitzean lortu nahi diren helburuei dagokienez.

Azterketak energia berriztagarrien iturrietarako instalatutako potentziari buruzko datuak jasoko ditu, baita autokontsumorako instalatutakoari buruzkoak ere. Datu horiek eguneratu egingo dira dokumentuaren bertsioetan.

LPSren helburua energia berriztagarrien aprobetxamenduak maila estrategikoan ezarritako helburuak lortzeko antolatzea dela kontuan hartuta, Azterketak iturri edo tipologia bakoitzari

dagozkion helburuak betetzeko beharrezkoak diren instalazioen tamaina kalkula lezake. Horrela, adibidez, 733 MW-eko lurreko potentzia eolikoa (2030 helburua) lortzeko behar diren aerosorgailu-lerroen kilometroak edo potentzia jakin bateko aerosorgailuen kopurua kalkula daitezke. Era berean, kalkula daiteke eguzki-energia fotovoltaiako instalazioekin zer azalera hartu behar den, 293 MW-eko potentzia instalatzeko helburua bete nahi bada. Horrela, energia berriztagarrien eskala handiko instalazioak pixkanaka hedatzea planifika daiteke, helburu estrategikoekin, harrera-gaitasunarekin eta lurraldeko guneen sentikortasunarekin bat etorritz.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektuen ezaugarri buruzko aurreikuspena egingo da Azterketan. Bereziki, eskala handiko ekoizpen-instalazioen proiektuen berezitasunak aztertuko dira: kokatzeko baldintzak, instalazioen ezaugarri teknikoak, neurriak, inplikaturako prozesuak, teknologia erabilgarri onenak, lehengaien eta baliabide naturalen erabilera, potentzia-unitate bakoitzeko behar den lurzorua, behar diren instalazioak, eragiketa eta elementu osagarriak, bizitza baliagarria. Karakterizazio hori beharrezkoa da proiektu tipologia desberdinei lotutako eraginak zehaztu ahal izateko. Biomasaren aprobetxamendu energetikoaren kasuan, kontuan hartuko da instalazioak zer ezaugarri dituen energia eskala industrialean aprobetxatzeko, eta biomasa-baliabideak ingurunetik ateratzeko.

Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta aurkituko dira, eta garrantzi handienekotik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapena, izaera, garrantzia eta baliabide naturalen kontsumoa.

Bestalde, planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako planak edo proiektuak identifikatu beharko ditu Azterketak, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko.

c. Plana onartu ondoren, behin betiko garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo -proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

d. Nolanahi ere, Plana egiteko denbora-aurreikuspen bat txertatuko da, Euskadiko 2030erako Energia Estrategian eta Klima 2050 Klima Aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategian (EK2050) zehaztutako helburuak eta irismenak kontuan hartuta.

e. Epigrafe honetan jasotako informazioak isla kartografikoa izango du eskala egokian, eta lurraldearen erabilera erakutsiko du, baita ingurumenean efektu garrantzitsuak eragin ditzaketen Planeko ekintzak, aurreikuspenak eta jarduketak ere. Beharrezkoa bada, etorkizuneko proiektuen eraginpeko kokapena eta eremua ageriko diren informazio kartografikoa atxiki beharko da, pdf eta shape formatuetan.

f. Planaren eta barne hartzen dituen garapen-proiektuen ezaugarriak kontuan hartuta, apartatu honetan kontuan hartu beharko den alderdietako bat energia berriztagarrien instalazio-proiektu horien ingurumen-inpaktuaren azterlanen eta ingurumen-dokumentuen gutxienerako edukiari buruzkoa da. Oro har, alderdi horiei sustatzaileak aurkeztutako HDEren I. eranskinean ematen zaien tratamendua egokitzat jotzen bada ere, beharrezkotzat jotzen da dokumentua osatzea eraginpeko administrazio publikoen eta kontsultatutako interesdunen ekarpenak kontuan hartuta.

Energia eolikoaren eta fotovoltaiakoaren garapenari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak egindako txostenaren arabera, Zuzendaritza horrek «*Laguntza teknikoa energia eoliko eta fotovoltaiakoaren garapena aztertzeke eta lan osagarriak egiteko, EAEko 2020-2021 aldiko Natura Ondarearen kontserbazioarekin bat etor daitezzen*» izeneko lana egin du. Horri dagokionez, beharrezkotzat jotzen da aipatutako lanaren «*2. blokea, Ingurumen-inpaktuaren azterlanen edukia*» izeneko, Azterketan sartzea erreferentziako dokumentu gisa, LPS garatzeko

proiektuetako energia berriztagarrien (eolikoa eta fotovoltaikoa) instalazioetarako ingurumen-azterlanen gutxieneko edukiak ezartzeko.

5.1.3. Plangintza-alternatibak

Honako hau bilduko da: alternatibak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumen-arlokoa eta LPSren helburuekiko bat-etortzea eta proportzionaltasuna justifikatuko dituena, batez ere ingurumen-helburuekikoak. Era berean, 0 alternatiba edo esku ez hartzeko alternatiba ere hartuko da kontuan. Kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

Laburpen bat jasoko da plangintza-alternatiba batzuk zergatik baztertu diren eta azkenean proposatutako alternatiba zergatik hautatu den adierazteko. Azterketa horretan, ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, baita aurkitutako zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean beharbada aurkitu diren gabezia teknikoak, edo ezagutza eta eskarmentu falta.

Azertzen ari garen kasuan, eta EAEn energia berriztagarriak garatzeko egon daitezkeen agertokiei dagokienez, LPSren Aurrerapen Dokumentuan jasotako alternatibak osatuko dituzten alternatibak, non aldagai estrategikoei pisu desberdinak hartuko dituzten (berrindartzea, autokontsumoa, eskala txikiko eta handiko ekoizpena), aztertu beharko lirateke; horrez gain, horien aprobetxamendu-potentziala eta lurraldean eta ingurumenean duten eragina ere balioetsi beharko litzateke.

Ebazpen honen 1.1 puntuan adierazi denez, beharrezkoa da energia berriztagarriak txikiagoak diren instalazioekin, baina oro har, baliabidea lortzeko maila handiak izan ditzaketenekin sortzeko aurreikuspena sartzea. Era berean, alternatiben azterketan kontuan hartu beharko da lehendik dauden parke eolikoen berrindartzea aukeratutako alternatiba baztertzen ez duen alternatiba gisa, parke eoliko berriak instalatzea saihesteko, neurri batean behintzat.

2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren I. eranskineko ingurumen-irizpideak aplikatuz, energia fotovoltaikoa eta biomasa eskala handian ekoizteko edo autokontsumorako instalazioak eremu artifizializatuetan ezartzeko aukerak aztertu behar dira (industrialdeak, meatze-zulo zaharrak, zabortegeak, azpiegituretatik gertu dauden kokalekuak, kanalizazio-egiturak, hiri-lurzoruak edo industria-lurzoru finkatuak, lurzoru urbanizagarriak, ingurumen-baliorik gabeko ur artifizialen xaflak, etab.); horretarako, lurzoruaren erabileraren arabera hainbat instalazio mota hartzeko gaitasuna aztertuko da. Gune horiek identifikatzeko, administrazio sektorialen inbentarioak, lurzoruaren erabilera moten mapak (Corine Land Cover) eta GeoEuskadiko eraikuntza-elementuen eta zerbitzu-eta instalazioen mapak erabil daitezke.

Bestalde, aerosorgailuen potentziari buruzko beste alternatiba batzuk aztertu beharko lirateke, kontuan hartuta gaur egun izapidetzen ari diren proiektuek oinarritzko agertokirako aukeratutako makinak baino makina indartsuagoak erabiltzea aurreikusten dutela (Gamesa G132 aerosorgailua, 3,465 MW-ekoa), eta horrek kokaleku berrien kopurua murriztea ekar dezake.

Behar denean, aintzakotzat hartu diren alternatibak modu kartografikoan jasoko dira.

5.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak

5.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena. Lurralde-eredua zehaztea

Azterketak ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu, eragin nabarmenak jasan ditzaketen guneen ingurumen-ezaugarriak zehaztuta eta LPS aplikatu

ezean gune horiek izan dezaketen bilakaera azalduta, klima-aldaketa bera ere kontuan izanik.

Era berean, garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo identifikatu behar da, baita Ebazpen honetako 3. apartatuan ingurumenaren aldetik garrantzitsu identifikatutako edozein gunerekin erlazionatutako arazoak ere.

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Ebazpen honen 3. apartatuan adierazitako eremu garrantzitsuak bereziki kontuan hartuta. Ildo horretan, aipatutako gune garrantzitsuei buruz dagoen informazio zehatzena eta eguneratuena erantsi beharko zaio Azterketari.

Planaren eremuko fauna-ezaugarriei dagokionez, eta aurreko kasuan bezala, Azterketari erantsi beharko zaio planaren garapenak uki ditzakeen animalia-espezieei buruz dagoen informaziorik zehatzena eta eguneratuena, bereziki hegazti-faunarentzako eta kiropteroentzako ugalketa-, elikadura- eta babes-eremuei buruzkoa, arreta berezia eskainiz Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko espezieei eta espezie mehatxatuei.

c. Paisaia. Inguruko paisaia-baliabideak aldatzeari dagokionez, azterketek honako alderdi hauek hartuko dituzte kontuan:

- Jarduketaren ikusgaitasuna ikus-eremuaren hainbat gunetatik, ibilienak lehenetsita, eta gaur egungo egoera eta etorkizuneko konparatuz.
- Kalitatea.
- Ahultasuna.

Paisaiaren kalitatearen berezko paisaiaren osagai bereizgarriari arreta berezia jarriko zaie, alderdi estetiko eta kulturalak kontuan hartuta. Horri dagokionez, kontuan hartuko dira osagai naturalen eta erabileren integrazioa, konposizio estetiko eta sortzen den giro emozionala.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, esate baterako, hauei buruz jasotakoak: higadura-arriskua, lurpeko uren kutsadurarekiko kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, baso-suteak izateko arriskua, lurrikara izateko arriskua, arrisku teknologikoa (salgai arriskutsuen garraioa, SEVESO III arriskua) edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku. Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Atzemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes-maila zehaztuko dira. Era berean, aipatuko da zein arau-xedapenek ematen dion kalifikazioa eta babesa kultura-ondasunari.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den eremuak diren eta kaltetua izan daitekeen biztanleria, inguru horretako aisialdiko, mendi-ibilaldietako edo landa-turismoko jarduerak eta abar.

g. Horrez gain, lurraldearen ingurumen-unitate homogeneousak definituko dira, horien paisaia-ezaugarrien eta baliabide naturalen azterketa integratutik abiatuta.

h. Aztertzen ari garen kasuan, eta planaren berezitasunak, aurreikusitako eraginpeko lurralde-eremuaren ezaugarriak eta elementuak aintzat hartuta, karakterizazio horren alderdi garrantzitsuenek zerikusia dute lurralde-ereduarekin, ingurumen-zonakatzearekin eta eremu optimo garbien karakterizazioarekin. Jarraian, Azterketan kontuan hartu beharko dien alderdi hauek garatuko dira.



i. Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzeko.

Energia berriztagarrien LPSren irismena eta berezitasunak kontuan hartuta, lurralde-eredua definitzeko honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

A. LPSren lurralde-eredua eta ingurumen-zonakatzea osatzen duten irizpideei buruz.

a. *Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak sustatutako 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen duen Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2016ko uztailaren 4ko Ebazpenaren C.1 apartatuan ezarritakoaren arabera, lurralde-eredu sektoriala eratzekoan lehentasuna emango zaie, edota aldeko baloratuko dira, hurrengo esparruetako energiaren sorrera, garraio eta banaketarako azpiegituren kokalekuen alternatibak::*

- Natura- edo paisaia-balioei edota lurzoruaen laborantza-kalitateari erreparatuz gero garrantzi gutxiko balioa duten guneak, eta artifizializatutako eremuak hobetsiko dira.
- Kultura-balioei erreparatuz gero, garrantzi gutxiko eremuak.
- Arrisku natural (uholde-arriskuak edo higadura-arriskuak kasu) garrantzitsurik gabeko eremuak.
- Lurpeko uren kutsaduraren aurrean kalteberak ez diren eremuak.
- Lehendik dauden azpiegiturretatik edota komunikatzeko bideetatik gertu dauden eremuak, eta, orokorrean, konexiorako azpiegituren premia txikiagoa duten kokalekuetatik gertu daudenak.

b. Lurralde-eredua eta bazterketa-eremuak definitzerakoan, kontuan hartu beharko dira Ebazpen honetako 3. apartatuan ingurumenaren aldetik garrantzitsutzat jotzen diren eremu guztiak. Era berean, energia berriztagarrien instalazioek, bereziki energia eolikoari dagokionez, identifikatutako bazterketa-eremuen inguruan sortutako eraginak arintzeko eremuak ezartzeari buruzko zehaztapenak ezartzeko aukera justifikatuko da.

c. Lurreko energia berriztagarriak (energia eolikoa eta fotovoltaikoa) ekoizteko instalazioen garapenari dagokionez, lurralde-eredu sektoriala osatzeko, bazterketa-eremuak eta eremu optimoak identifikatzeko, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak egindako dokumentua, hots, «*Laguntza teknikoa energia eoliko eta fotovoltaikoen garapena aztertzeke eta lan osagarriak egiteko, EAEko 2020-2021 aldiko Natura Ondarearen kontserbazioarekin bat etor daitezen*» izenekoa, erabiliko da oinarri gisa, eta bereziki aipatutako laneko 1. blokean («*Parke eoliko eta fotovoltaikoen eragindako inpaktuak eta ingurumen-zonakatzearen proposamena*») –6. eta 7. apartatuetan– aintzat hartzen diren irizpideak. Bereziki, tresna horretan azaltzen diren gehieneko ingurumen-sentikortasuna duten inguruneak eta sentikortasun oso handia dutenak hartuko dira kontuan.

d. Bazterketa-eremuei dagokienez, eta, besteak beste, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenak kontuan hartuta, honako gogoeta hauek hartu beharko dira kontuan:

- Planaren eremua osatzen duten eta lurralde-eragina duten energia-aprobetxamenduak nekez izan daitezke bateragarriak Natura 2000 Sarearen helburuekin, Ebazpen honen 5.3.1 apartatuan aipatzen diren estrategia eta xedapenetan adierazi den bezala. Aprobetxamendu horiek, oro har, naturagune babestu jakin batzuetan ez ezik, Natura 2000 Sareko naturagune babestuetan ere baztertzeke aukera baloratuko da, *2021-2030 aldirako Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen duen Ingurumenaren Kalitate*

eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko abenduaren 30eko Ebazpenean eta aipatutako 3E2030 Estrategiaren I. eranskinean jasotako gomendioekin bat etorritik.

- Nolanahi ere, kontuan hartuko da aprobetxamendu eolikoa ez diren energia berriztagarrien aprobetxamenduak debekatutako jarduera bat direla edo, gutxienez, saihestu egin behar direla Natura 2000 guneak kudeatzeko tresna batzuen arabera.
- Biotopo Babestuen babes-eremu periferikoei dagokienez, kontuan hartuta, Leitzaraneen kasuan izan ezik, oso txikiak direla, beharrezkotzat jotzen da horiek ere baztertutako guneak izatea.
- Espezie mehatxatu batzuen (galtzeko arriskuan dauden harrapariak, Europako ekaitz-txorria eta ubarroi mottoduna) interes bereziko eremuak ere energia eolikoa ezartzeko berariaz baztertutako eremuak dira. Bestalde, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenaren arabera, beharrezkotzat jotzen da bazterketa hori onartutako Kudeaketa Plana duten hegazti mehatxatuentzako interes bereziko eremu guztietara zabaltzea.
- Baztertutako eremuak izango dira, halaber, flora mehatxatuko espezie ezagunen kokaleku guztiak, baldin eta espezie horien banaketa-kartografia geoEuskadiren bidez kontsulta badaiteke.
- Era berean, aztertuko da energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak baztertu behar ote diren EAeko paisaia-balio handieneko eremuetan: Euskal Autonomia Erkidegoko paisaia berezien eta apartekoen katalogoa; aipatutako katalogoko paisaia-balio oso handiko arroak; Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoko paisaia bereziak.
- Energia minihidraulikoari dagokionez, instalazio horiek baztertu egin behar dira Natura 2000 Saretik, korridore ekologikoetarako LPSn jasotzen denaren arabera. Bestalde, aprobetxamendu horretarako bazterketa-eremuak identifikatzeko, iktiofauna-espezieak ez ezik, uretako ekosistemei lotutako espezie mehatxatuen banaketa-eremuak ere hartuko dira kontuan, hala nola desman piriniotarra (*Galemys pyrenaicus*), bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta igaraba (*Lutra lutra*).
- Itsas energiako instalazioak baztertu egin behar dira Ramsar hezeguneetan (edo «ez da aplikatzen» kontzeptupean jarriko dira), gutxienez EAeko Hezeguneen LPSren I. eta II. multzoetako hezeguneetan eta babestutako guneen tipologia guztietan.
- Lurreko eguzki-energiako instalazioak baztertu egin behar dira Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatak eta landaredi-masa autoktono helduak dituzten eremuetatik eta lehentasunezko fluxu-eremutik. Mugatu egingo da 100 urteko errepikatze-denborako uraldiaren ondorioz urpean gera daitekeen eremuan ezartzea, uholde-arriskua eta ingurunean lehendik dagoen arriskua larriagotu ez daitezen; horretarako, Uraren Euskal Agentziak txostenean zehazten dituen baldintzak hartuko dira kontuan.
- Gainerako energia berriztagarriei dagokienez, uholde-arriskuari buruzko araudia aplikatuz bideragarritasun eskasa dutenez, Uraren Euskal Agentziak proposatu du bazterketa-eremua 100 urteko errepikatze-denborako uraldien ondorioz urpean gera daitekeen eremura zabaltzea.
- Baso-biomasa eskala handian aprobetxatzeko zonakatzeko irizpideak ezarriko dira, baliabidearen kudeaketa optimoa eta baso autoktonoen zaintza bateragarriak izan daitezen, eta lehengaiak epe luzean edukitzeko, betiere ekosistemen funtzionamenduari kalterik egiten ez bazaio, lurzoruan eta egurrean C-ren gordailua bermatuz. Horretarako, lurraldearen azterketa egin beharko da, biomasa aprobetxatzera bideratutako lurzorua izateko erabilera-aldaketa izan dezakeen lurzoruaren erabilgarritasunaren arabera. Aprobetxamendu horrek baztertuta geratu beharko luke naturagune babestuetan, baso natural edo erdinatural autoktono helduetan eta 100 urteko errepikatze-denborako uraldien ondorioz urpean gera daitezkeen eremuetan, adierazi den bezala.
- Lurzoru urbanizaezinean bateragarriak diren erabileren artean eskala handiko biomasa-instalazioak baztertu behar diren aztertuko da; horretarako, instalazio horiek industria-eremu



zaharkitu edo abandonatuetan edo artifizializatutako beste eremu batzuetan kokatzeko aukera aztertuko da, lurzoru emankorrak okupatzea saihestuz.

e. Kultura-ondareari eta LPSren lurralde-ereduari dagokienez, kontuan hartuko dira, oro har, egindako kontsulta-izapideari erantzuteko arlo horretan eskumena duten erakundeek egindako txostenetan jasotako gogoetak. Besteak beste:

- Lurralde-azterketa egitean, adierazitako txostenetan aipatutako informazio-iturriak kontuan hartzea, bai lurralde-eredua osatzeko, bai LPSren zehaztapenetan kontuan hartzeko.
- Babes ertain edo bereziko kultura-ondasunak, ustezko zona arkeologiko izendatuak barne, bazterketa-eremutat hartuko dira energia berriztagarriak garatzeko, eta hori berariaz jaso behar da LPSko zehaztapenetan. Era berean, gomendatzen da bazterketa-eremu horietan kultura-ondasun izendatzeko proposatutako elementuak sartzea.
- Kultura-ondasun izendatzeko proposamena duten ustezko arkeologia-guneei dagokienez, nahitaez baztertu behar diren eremutat hartzen ez diren arren, kontuan hartu behar da edozein instalazio egin aurretik azterketa arkeologiko bat egin beharko litzatekeela, eta azterketa horren ondorioz, lortutako emaitzen arabera, kultura-ondasun izendatu ahal izango litzateke.
- Bazterketa-eremuak zehazteko garaian, behar bezala kartografiatu beharko dira babestu beharreko kultura-ondarearen elementuak (besteak beste, Donejakue bidea, Bilboko Burdin Hesia eta defentsak kultura-ondasuna, arkeologia-ondareko eta Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren Paisaiaren monumentu-multzoko elementu batzuk), eta hasierako dokumentu estrategikoan aurkitutako akatsak zuzendu beharko dira.
- Estalkiko eguzki-energia fotovoltaikoari eta eguzki-energia termikoari dagokienez, kultura-ondareari buruzko araudiak kultura-ondasuntzat jotzen diren eraikinetan eta horien inguruan ezartzen dituen mugak hartuko dira kontuan. Monumentu-multzoaren mugaketan sartutako eraikin guztiak baztertu beharko lirateke.

f. Lurraldearen ingurumen-zonakatzea ezartzeko ingurumen-irizpideei dagokienez, ez da egokitzat jotzen «*lekuaren berezko balioen gaineko ondorioen ebaluazio baten baldintzapean*» ingurumen-irizpidea ezartzea; izan ere, irizpide hori jada ezarrita dago LPSren xede diren instalazioetarako ingurumen-ebaluazioari buruzko araudian.

g. Beharrezkoa da Hezeguneen LPSri (II. multzoko hezeguneak) eta Ibaiak eta Errekak Antolatzeako LPSri buruzko zonakatzearen edukiak berrikustea, kategoriak identifikatzeari eta uholde-arriskuaren eraginpean dauden eremuetan egon daitezkeen mugak aplikatzeari dagokionez, Uraren Euskal Agentziak bere txostenean adierazten duenaren arabera.

B. Eremu optimo garbien ingurumen-karakterizazioa egiteko irizpideak.

Energia berriztagarrien instalazioak garatzeko eremu optimo garbiak identifikatzeari eta karakterizatzeari dagokionez, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulta-izapidean jasotako txostenen arabera, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

a. Energia eolikoaren LPSn (2002) aurreikusten denez, aerosorgailu-lerroen kasuan, kokalekuak instalazioaren okupazio-poligonoen bidez irudikatu beharko lirateke. Era berean, mapetan honako hauek adierazi beharko lirateke: martxan dauden energia berriztagarrien instalazioak, konexio-lotuneak, azpiestazio elektrikoak, garraio-linea nagusiak eta bide-sarea.

b. Energia eolikorako 2. mailako eremu optimo garbiei eta eguzki-aprobetxamendu fotovoltaikorako eremu optimo garbiei dagokienez, beste ezaugarri batzuk ere kontuan hartu behar dira. Ezaugarri horiek planaren zonakatzeak lurraldearen azalera zabalak egokitzat edo onargarritzat (baldintzatuak)

jo dituen eremuetan sentikortasun- edo harrera-gaitasunaren mailak bereiztea ahalbidetuko dute, Arabako Errioxan energia fotovoltaikorako eta eolikorako (2. maila) edo Arabako Lautadan eta Arabako bailaretan energia fotovoltaikorako gertatzen den bezala. Aipatutako «*Laguntza teknikoa energia eoliko eta fotovoltaikoen garapena aztertzeko eta lan osagarriak egiteko, EAEko 2020-2021 aldiko Natura Ondarearen kontserbazioarekin bat etor daitezzen*» izeneko azterlanean lurraldearen ingurumen-zonakatzea egiteko aintzat hartzen diren irizpideak, eta, bereziki, «*Parke eoliko eta fotovoltaikoek eragindako inpaktuak eta ingurumen-zonakatzearen proposamena*» izeneko 1. blokearen 7. apartatuan jasotzen den ingurumen-zonakatzearen proposamena har daitezke erreferentzia gisa.

c. Era berean, aerosorgailu-eremu edo -erro zehatzak finkatu beharko lirатеke Arabako Errioxako 2. mailako eremu optimoetan.

d. Energia eolikorako eremu optimo garbiak zehazteko, ingurumen-inpaktuaren adierazpenak egin zaizkien proiektuen kokalekuak hartuko dira kontuan, betiere alde batera utzi gabe etorkizuneko proiektuei ingurumen-inpaktuaren beste ebaluazio bat egin behar izatea. Hala badagokio, proiektuak abian jartzeko aurkitutako arazoak identifikatuko dira.

e. Azterketak, edukien artean, ingurumen-karakterizazio berezi bat jaso beharko du LPSren Aurrerapen Dokumentuan identifikatutako eremu optimo garbi bakoitzerako, eremu horietako bakoitzari eragiten dioten ingurumen-baldintza garrantzitsuenak kontuan hartuta.

Eremu optimo garbi bakoitzaren ingurumen-karakterizazioak eta -balorazioak aukera eman beharko dute eremu optimo garbi bakoitzaren barnean energia berriztagarriak garatzeko harrera-ahalmen handiena duten eremuak ingurumen-ikuspegitik eta Planaren definizio-eskalatik identifikatzeko (gutxienez 1:25.000, edo xehetasun handiagoz, energia motaren eta aztergai den aldagaiaren arabera), eskualde-mailan energia berriztagarrien instalazioak ezartzeko ingurumen-baldintzatzaile handienak dituzten eremuekin alderatuta (besteak beste, natura-, paisaia-, kultura- edo nekazaritza-produktibitateko alderdiak barne hartuta).

Eremu optimo garbien ingurumen-karakterizazioak kontuan hartu beharko du, aldez aurretik behintzat, energia berriztagarrien proiektu baten eraginak lotuta egon daitezkeela dagokion proiektuaren berezko azpiegiturekin, baina baita haren funtzionamendurako beharrezkoak diren azpiegitura erantsi guztiekin ere (sarbideak, zerbitzu-bideak, hesiak, ebakuazio-lineak, azpiestazioak...). Gai hori eremu optimo garbi bakoitzerako aztertuko da, garatzea aurreikusita dagoen energia berriztagarrien proiektu motaren arabera.

Eremu optimo garbien karakterizazioa egiteko, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den eremuak egotea eta kaltetua izan daitezkeen biztanleria, inguru horretako aisialdiko, mendi-ibilaldietako edo landa-turismoko jarduerak eta abar.

f. Bestalde, erantzun arrazoitua eman beharko zaie eremu horiei buruz Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, EAEko Lurralde Historikoetako foru-aldundietako ingurumenaren, nekazaritzaren, mendien eta kultura-ondarearen arloan eskumenak dituzten Zuzendaritza eta Zerbitzuek edo kontserbazio-erakundeek egindako txostenetan zehazten diren gogoetei. Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren txostena eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumenaren Kalitatearen Zerbitzuaren txostenak edo erakunde kontserbazionista batzuek (Ekologistak Martxan Bizkaia) aerosorgailu-lerroei eta -eremu zehatzei buruz egindako gogoetak eta proposamenak.
- Arabako Errioxako eremu optimo garbiak kontserbazio-arazoak eragin diezazkiekete estepako hegaztiei. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenean beharrezkotzat jotzen da Arabako Errioxan dauden energia fotovoltaikorako eremu optimo garbiak berrikustea eremu «baldintzatu» gisa sartzeko «Lurraldearen gainerako eremua» kategoriaren barruan. Txosten horretan, halaber, agerian jartzen da eremu optimo garbi batzuk

gainjarri egiten zaizkiela bazterketa-eremuei edo balizko eremu baldintzatuei, eta, beraz, horiek berrikustea proposatu da.

g. Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, ebaluatzen den agiriarekiko proportzioa duen eskalan. Arestian adierazi dugunez, LPSren eta Azterketaren zonakatzeko-planoetan honako hauek agertu beharko dute: sartzeko lotuneak, azpiestazio elektrikoak, garraio-lineak eta komunikazio-bideak.

5.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapenak eta datuak oinarri hartuta, egokia izanez gero, ingurumenaren egungo egoeraren laburpen bat egingo da Planaren eraginpeko eremuan, eta labur-labur jasoko da zein diren lurralde-eredua eta eremu optimoak zehazteko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak eta ingurumen-ebaluazioko prozesurako nabarmenak direnak. Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak atzeman beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu ahulak edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Apartatu hau idazteko, ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

5.3. Proposatutako planaren ingurumen-efektuak

a. Apartatu honetan, ingurumenean eragina izan dezaketen efektu garrantzitsuak aztertu beharko dira, honako alderdi hauek barnean hartuta: biodibertsitatea, biztanleria, giza osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea, ondare historikoa barne, klima-faktoreak, klima-aldaketan izan dezaketen eragina (planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia barne), ondasun materialak, kultura-ondarea, paisaia eta faktore horien arteko interrelazioa, eta faktore horiek kontuan hartzeko, eraginpeko ekosistemek eskainitako ingurumen-zerbitzuak ebaluatuko dira. Efektu horiek zeharkako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzeko efektuak, efektu iraunkorrak eta iragankorrak, positiboak eta negatiboak hartu behar dituzte barnean.

b. Azterketak Planaren jarduketa-proposamenei lotutako ekintzen ingurumen-efektuak aztertu beharko ditu bereziki. Efektu horietarako, energia berriztagarriak industria-eskalan aprobeztatzeko instalazioen tipologia desberdinei lotutako inpaktuak deskribatuko dira. Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak bere txostenean adierazi duen bezala, lehen aipatutako azterketaren 1. blokeko 6. apartatuak parke eoliko eta fotovoltaikoei lotutako inpaktuak deskribatzen ditu, eta, beraz, Azterketan sar daiteke, gutxienez, energia berriztagarrien bi mota horiei dagokienez. Era berean, 2021-2030 aldirako Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen duen Ingurumenaren Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko abenduaren 30eko Ebazpena har daiteke erreferentzia gisa. Ebazpen honetan labur-labur jaso dira energia berriztagarrien instalazioei lotuta izan daitezkeen efektu negatibo batzuk.

c. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzak emandako txostenean azaldutakoa kontuan hartuta, eta kokapen jakin batzuetan eremu optimo garbitzat jotako kokalekuei buruz egin duen karakterizazioaren ondorioz, Azterketak identifikatu diren eremu optimo garbiak (1. eta 2. mailak) konparatu eta sailkatu beharko ditu, eremu horien harrera-ahalmenaren eta ingurumen-egokitasunaren arabera, parametro batzuk kontuan hartuta, hala nola paisaia, abifauna, habitata, kiropteroak eta abar. Azterketa hori aztertutako ingurumen-faktore nagusiekiko konparazio-taula gisa planteatu daiteke, kokaleku bakoitzaren sailkapena edo kategorizazioa lortzeko, energia berriztagarrien proiektuek eragin dezaketen ingurumen-inpaktuari dagokienez.

d. Kontuan hartu beharko da, aldez aurretik behintzat, energia berriztagarrien proiektu baten eraginek zerikusia izan dezaketela dagokion proiektuaren berezko azpiegiturekin ez ezik, proiektuaren funtzionamendurako beharrezkoak diren azpiegitura erantsi guztiekin ere (sarbideak, zerbitzu-bideak, hesiak, ebakuazio-lineak, azpiestazioak...). Gai hori eremu optimo garbi bakoitzerako aztertuko da, gauzatu nahi den energia berriztagarrien proiektu motaren arabera, eta irizpideak edo zehaztapenak proposatuko dira eremu optimo garbien ingurumen-balioespenean bertan kontuan hartzeko eta Plana garatzeko proiektuetan txertatzeko, inpaktuei buruzko azterketak proiektu batek izan ditzakeen ekintza guztiak, ingurumenean eragina dutenak, kontuan har ditzan eta ekintza horiek ingurumenean dituzten efektuak behar bezala balioesteko.

e. Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Planetik eratorritako jarduketek natura-ondarean dituzten efektuak zehaztu eta baloratuko dira, Planaren afekzio-eremuan identifikatutako ingurumen-aldagai guztiei eragin ote diezaieketen kontuan hartuta, arreta berezia eskainiz Batasunaren eta/edo eskualdearen intereseko landarediari eta habitatei –bereziki lehentasunezkoek–, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuei –bereziki, abifaunari eta kiropteroenei–, interes geologikoko lekuei, korridore ekologikoei, etab.
- Batasunaren intereseko landarediaren eta habitaten gaineko inpaktua baloratzeko, eraginpeko habitat motak eta eraginpeko azalera (aurretiko balioespenak) ez ezik, kontserbazio-egoerari, adierazgarritasunari, bitxitasunari, kalteberatasun-mailari eta konektagarritasunari eusteko betetzen duten eginkizuna ere kontuan hartuko dira.
- Flora-espezie mehatxatu bakoitzerako, edo EAEn oso hedapen mugatua duen espezie bakoitzerako, eraginpeko espezieak identifikatuko dira eta behar diren zehaztapenak ezarriko dira zuzeneko eta zeharkako eraginak saihesteko (moteltze-eremuak ezarriz, adibidez).
- Azterketak baloratuko du Planaren jarduketek instalazioaren eragin-eremuan identifikatutako fauna talde guztiei eragiten dieten, bai zuzenean, bai zeharka, habitatak aldatzeagatik, eta bereziki azpimarratuko du abifaunaren eta kiropteroen gaineko inpaktuen balorazioa.
- Plana gauzatzeko jarduketek paisaian duten eragina analizatuko du Azterketak, Planaren eremuko paisaiaren ikuspegi-eremuarekin, kalitatearekin eta ahultasunarekin zerikusia duten alderdiak barne hartuta. Energia berriztagarrien instalazioak izateak eragindako balio estetiko-kulturalen galera baloratuko da. Gomendatzen da egindako analisiaren emaitzak baloratzeko erraz interpreta daitezkeen datuak aurkeztea; adibidez, simulazio-irudiak sartuta.
- Kultura-ondareko elementuen gaineko eraginak baloratzeari dagokionez, Azterketak kontuan hartu behar du Planaren eremuan dauden ondasunetan gerta daitezkeen eragina, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten izapidean jaso dituzten txostenetan agertzen diren gogoetak aintzat hartuta.
- Giza habitataren kalitateari dagokionez, eraginen analisiak honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan: soinu-kalitatea, airearen kalitatea, kontsumorako uren kalitatea, lurzoruak, eremu elektromagnetikoak eta eraginpeko herritarren osasunean izandako eraginak. Era berean, kontuan hartuko dira inguruan izan daitezkeen eraginak: aisia-baliabide eta -jarduerak, mendi-ibiliak edo landa-turismoa, etab.
- Kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketek (lehendik dauden energia berriztagarrien instalazioak) eta aurreikusitako jarduketek berrien arteko konbinazioak ekar ditzakeen efektu metatzailak eta sinergikoak. Hala dagokionean, zehaztu egingo da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzaie.

- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak egindako txostenaren arabera, kontuan hartu beharko dira, bereziki, energia eolikoko instalazioek LPSren eremuan dauden radar meteorologikoen funtzionamenduan dituzten eraginak. Eragin horiek larriak izan daitezkeenez, beharrezkotzat jotzen da istripu larrien eta hondamendien aurrean proiektuaren kalteberatasuna baldintzatzen edo baztertzen duten irizpideak sartzea, baldin eta berariaz ikusten bada baldintza meteorologikoen zaintza- eta alerta-sareko funtsezko instalazioetan eragina izan dela, LPSk aprobetxamendu berriztagarri eolikoa erabilera onargarritzat jotzen diren eremu optimo garbiak zehaztu aurretik.
- Energia berriztagarrien instalazioak, energia fotovoltaikorenak bereziki, Arabako Lurralde Historikoko zenbait lekutan ezartzeari dagokionez, bai Arabako Lautadan, bai Arabako Ibarretan, eta, bereziki, Arabako Errioxan, zehatz-mehatz aztertu beharko dira, efektu sinergikoak eta metatzaileak barne hartuta, energia horiek garatzeak zer ondorio dituzten nekazaritza-balio handiko lurzoruak (mahasti-eremuak, zereal-eremuak eta bestelako labore-eremuak, balio handiko nekazaritza-baliabideak, nekazaritza-inguruneei lotutako hegazti mehatxatuentzat eremu garrantzitsuak direnak, gainera), paisaia-balio handiko lurzoruak, baso-balio handiko lurzoruak (Onura Publikoko Mendian duen eragina, basoak lehengoratzeko partzuergoak eta luberritzeak, eskualde horretan kontserbatzen diren baso-lekune urriak mantentzeko eta leheneratzeko zalantzarik gabeko balioa duten eremuak barne) kultura-balio handiko lurzoruak (hainbat txostenek agerian jartzen dute 2014an Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren Paisaia kultura-ondasuntzat kalifikatu zutela monumentu-multzoaren kategorian) eta Natura 2000 Sareko guneetatik, lotura-intereseko guneetatik, BIHTik eta herrietatik hurbil daudelako ahulak diren beste eremu batzuk babesteko eta kontserbatzeko.

f. Identifikatu eta kodetutako efektuak baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko zer probabilitate duten, zenbateko iraupena eta maiztasuna izan dezaketen, eta itzulgarriak ote diren.
- Efektuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitekeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitate-estandarrak edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, efektuak kuantifikatu egingo dira Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzko datu neurgarriak erabiliz. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen efektu horien iragarpenean.

g. Era berean, ahal denean, efektuak kartografiaren bidez lokalizatuko dira, eta, halaber, ahalegina egingo da zehazteko planaren zer fasetan gerta litezkeen efektu horiek, aurreikuspenen arabera.

h. Adieraziko da ea atzemandako efektu horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

i. Hala deskribatutako ingurumen-efektuak hierarkizatu egingo dira, horien garrantzi erlatibo nabarmenduta.

j. Halaber, hala badagokio, zehaztuko da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

5.3.1. Natura 2000 Sareko guneetan izan daitekeen eraginari buruzko balorazioa

Natura 2000 Sareko kontserbatu beharreko gune eta elementuetan izan dezakeen eragina garrantzizko alderditzat jotzen da, eta bereziki hartu behar da kontuan Azterketan.

Natura 2000 Sareko guneei edo gune horiek izendatzeko kontuan hartu ziren kudeaketako funtsezko elementuei zuzenean edo zeharka eragin diezaieketen jarduerak aurreikusten dira Planean. Beraz, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46. artikuluan aurreikusitakoa aplikatu behar da, eta, ondorioz, Azterketak apartatu espezifiko bat jaso beharko du planetik eratorritako jarduerak Natura 2000 Sarean izango dituzten ondorioak ebaluatzeko, kontuan hartuta gune horiek kontserbatzeko helburuak, eta, bereziki, ekosistema horietan dauden Batasunaren intereseko habitat eta espezieen gaineko eragina, zuzeneko edo zeharkakoa, horien kontserbazio-egoera eta Natura 2000 Sareak elkarrekin lotuta dauden ekosistemen sare gisa duen funtzionaltasuna eta koherentzia. Azterketa horretan, inpaktu horien identifikazioa, Natura 2000 Sareko prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak eta horien jarraipena jasoko dira.

Natura Sareko guneen gaineko eraginaren balorazioak barnean hartu behar ditu gune berean edo hurbileko lurraldeetan bi instalazio edo gehiago egotearen ondorio zuzenak, zeharkakoak, metagarriak eta sinergikoak, bereziki paisaiari, abifaunari eta kiropteroei eragindakoak. Azterketa horrek kontuan izan behar du, halaber, konektagarritasun ekologikoa, eta habitaten zatiketa eta espezieen desplazamendu eta mugimenduetan dauden oztopoak mugatu behar du.

Prebentzio- eta zuzenketa-neurri gisa, zehaztapenak edo mugak proposatu ahal izango dira, gune horietan kontserbatu beharreko espazio eta elementuei eragin nabarmenik ez sortzeko eta Natura 2000 Sareak elkarri lotutako ekosistemen sare gisa koherentzia izateko, bai debeku zehatzak ezarriz (adibidez, instalazio mota jakin batzuetarako bazterketa-eremuak zehaztuz, edo gune jakin batean kudeaketarako funtsezko elementuak diren habitatei eta/edo lehentasunezko espezieei eragitea debekatuz), baita eragin-mugak ezarriz ere. Muga horiek kontuan hartu beharko dira Plana garatuko duten proiektuetan eta horiei buruzko ingurumen-inpaktuaren azterketetan. Efektu nabarmenat hartuko dira toki horretan kontserbatzen diren habitaten edo espezieen kontserbazio-egoera edo, hala badagokio, leheneratzeko aukerak zehazten dituzten parametroek txarrera egitea eragin dezaketenak.

Natura 2000 Sareko guneetan eta horien kontserbazio-helburuetan zuzenean edo zeharka izan dezakeen eraginari dagokionez, garrantzitsua da irizpide eta xedapen hauek aintzat hartzea Azterketan kontuan hartzeko:

- 2021-2030 aldirako Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen duen Ingurumenaren Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko abenduaren 30eko Ebazpenean adierazitakoaren arabera, saihestu egingo da naturagune babestuetan eta Natura 2000 Sarean energia berriztagarrien industria-proiektuak instalatzea.
- Bestalde, 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren I. eranskinean (Ingurumen-neurrien gomendioak), eta, zehazki, E1.2 apartatuan («Energiaekin lotutako proiektuetarako neurrien gomendioak»), honako hau adierazten da:

Biodibertsitateari dagokionez, azpiegiturak, ahal dela eta besteak beste, naturagune babestuetatik kanpo kokatuko dira, interes geologikoko puntuetatik kanpo, ongi kontserbatuta dauden landare multzoetatik kanpo, eta flora eta fauna espezieen

katalogoan sartutako espezimenak kokatzen diren guneeetatik kanpo. Habitategi dagokienez, baldintza naturalak ez dira aldatu behar, babes hori eskuratzea eragin zuten ezaugarriak gal ez daitezten.

- Ildo horretan bertan, 2016ko uztailaren 4ko Ebazpenak, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarenak, 2030erako Euskadiko Estrategia Energetikoaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen duenak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak sustatu zuenak, honako neurri hauek ezartzen ditu, besteak beste:

Proiektuen edo planen onespene edo baimenerako organo eskudunek ez dute baimenik emango, eta ez diete bide emango, komunitatearentzako garrantzitsuak diren habitategi negatiboki eragingo dieten proiektuei, ezta ere natura balio nabarmenengatik, balio kulturalengatik, edota giza osasunari eta ingurumenari, egun edo etorkizunean, eragin diezaioketen arriskuengatik ingurunearekiko garrantzitsuak diren beste eremu batzuetan eragin kaltegarri nabarmenak izan ditzaketenei.

- Instalazio fotovoltaikoen kasuan, Ingurumen Agintaritzen Sareak egindako eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioak², argitaratutako «*Lurreko parke fotovoltaikoaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterlanaren irismena*» izeneko dokumentu teknikoaren arabera, parke fotovoltaikoak ezartzeko alternatibak sortu eta aukeratzekoan, ahaleginak egingo dira «*Natura 2000 Sareko guneeetan, naturagune babestuetan eta nazioarteko tresnen bidez babestutako eremuetan alternatibak saihesteko, baita horietatik hurbil dagoen ingurunean (1-2 km parkearen kasuan, 1-5 km HBBEko linea elektrikoaren kasuan) edo horien babes-eremu periferikoetan ere*».
- Energia eolikoen instalazioei dagokienez, Ingurumen Agintaritzen Sareak egindako eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioak³ argitaratutako «*Lurreko parke eolikoaren proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterlanaren irismena*» izeneko dokumentu teknikoaren arabera, parke eolikoak ezartzeko alternatibak sortu eta aukeratzekoan, ahaleginak egingo dira «*Natura 2000 Sareko guneeetan eta horietatik hurbil dagoen ingurunean (1-5 km kiropteroak dauden KBEen/BILen kasuan, 2-10 km HBBEen kasuan) alternatibak saihesteko, baita edozein motatako naturagune babestuetan eta nazioarteko tresnen bidez babestutako eremuetan eta horiei dagozkien babes-eremu periferikoetan ere*».

Natura 2000 Sareko guneeetan izan daitekeen eragina baloratzeko eta Natura 2000 Sareari eragiten dion Plana garatzeko proiektuei buruzko zehaztapenak ezartzeko erreferentzia-dokumentu gisa, honako hauek nabarmendu daitezke, besteak beste:

- Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa. 2018. Natura 2000 Sarearen gaineko proiektuen ondorioen ebaluazio egokia Estatuko Administrazio Orokorraren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-dokumentuetan sartzeko beharrezkoa den informazioari buruzko gomendioak. Madril.
- Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa. 2019. Natura 2000 Sareko ingurumen-inpaktua ebaluatzeko gida metodologikoa. Biodibertsitatearen eta Natura Ingurunearen Zuzendariorde Nagusiak erabilitako irizpideak Natura 2000 Sareko guneen osotasunari egindako kaltea zehazteko, Batasunaren intereseko habitategi erasategatik. 2019ko urtarileko bertsioa.
- Europako Batzordea, 2020. Energia eolikoari buruzko proiektuei eta natura babesteari buruzko EBren legeriari buruzko orientazio-dokumentua. Brusela.

²https://www.miteco.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/red-de-autoridades-ambientales-raa-alcanceesiaparquefotovoltaicogtraafinal_tcm30-523230.pdf

³https://www.miteco.gob.es/fr/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/red-de-autoridades-ambientales-raa-alcanceesiaparqueeolicogtraafinal_tcm36-523227.pdf

5.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.

- a. Apartatu honetan deskribatuko da zer neurri aurreikusten den Azterketaren 3. apartatuan deskribatutako ingurumen-efektu kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-efektu garrantzitsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea izango dute helburu. Lurraldearen lotura ekologikoa ziurtatzeko behar diren neurri, arau edo erregulazioak proposatuko dira.
- b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-efektuekin. Neurriak deskribatuko dira, eta Azterketako 3 apartatuan identifikatutako efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira.
- c. Neurri horien definizioak bat etorri behar du ebaluatzen den dokumentuaren izaerarekin eta definizio-mailarekin. LPS bat bada, prebentzio- edo babes-neurriak nagusitu beharko lirateke, eta Planean txertatu beharreko irizpide eta zehaztapenetan agertu. Ildo horretan, bazterketa-eremuak definitzea eta sentikortasun handiko bazterketa-eremuetan berriztagarrien instalazioek sortutako inpaktuei dagokionez moteltze-eremuak ezartzea babes-neurritzat har daitezke.
- d. Planean bertan edo plangintzaren ondorengo faseetan edo etapetan aplikatzea komeni diren edo egingarriak diren neurri zuzentzaileak edo konpentsaziozkoak hartuko dira, batez ere Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan, eta proiektuaren garapen-fase guztiak hartuko dira kontuan, baita instalazioak desegiteko baldintzak ere, haien bizitza baliagarria eta hondakinen kudeaketa amaitu ondoren. Nolanahi ere, xehetasun-mailak nahikoa izan beharko du proiektu horien ingurumen-bideragarritasuna bermatzeko. Horri dagokionez, eraginpeko administrazio publikoek eta kontsultatutako interesdunek proposatutako neurriak kontuan hartuko dira.
- e. Kokapen-irizpideak, ezaugarri teknikoak edo instalazio partekatutako zehaztutako dirak hurbil dauden instalazioek ingurumen-ebaluazioaren ondorioetarako proiektu bakar bat noiz osatzen duten bereizi ahal izateko.

Neurriak definitzeko garaian, honako dokumentu eta arau-erreferentzia hauek hartuko dira kontuan:

- 2021-2030 aldirako Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratua eta 2020ko abenduaren 30eko Ebazpena, Ingurumenaren Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiarena, Klimaren Plan Nazional Integratuaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen duena. Ebazpen honetan, 2021-2030 aldirako Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratuan jasotako ingurumen-neurrien eta eraginak gutxitzeko gomendioen sorta zehatza jasotzen da labor-labor.
- 2030erako Euskadiko Estrategia Energetikoa eta, bereziki, horren I. eranskina: Ingurumen-neurrien gomendioak, eta, zehazki, E1.2 apartatua «*Energiarekin lotutako proiektuetarako neurrien gomendioak*». Gomendio horiei 2016ko uztailaren 4ko Ebazpenean –Ingurumen Administrazioaren zuzendaria, 2030erako Euskadiko Estrategia Energetikoaren ingurumen-adierazpen estrategikoa formulatzen duena, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak sustatuta– jasotzen direnak gehitu beharko zaizkie.
- Ingurumen Agintaritzen Sareak egindako eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioak argitaratutako dokumentu teknikoak: Energia berriztagarrien (lurreko eoliko eta fotovoltaikoak) proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko azpitalde teknikoak.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak egindako «*Laguntza teknikoa energia eoliko eta fotovoltaikoen garapena aztertzeko eta lan osagarriak egiteko, EAEko 2020-2021 aldirako Natura Ondarearen kontserbazioarekin bat etor daitezela*» izeneko

lanaren 2. blokean, «Ingurumen-inpaktuaren azterlanen edukia» izenekoan, azaltzen diren prebentzio-, zuzenketa-eta konpentsazio-neurrien proposamena.

5.5. Ingurumena zaintzeko programa.

a. Azterketak, ingurumena zaintzeko programa bat egingo du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan efektuak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-efektuak aztertzea, aurreikusi gabeko efektu kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Aurreko apartatuan adierazitakoarekin bat etorrita, ingurumena zaintzeko neurriak izan ahalko dira plangintzaren geroagoko faseetan (edo Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan) aplikatzea komeni diren edo gauzagarriak diren gidalerroak, irizpideak eta/edo kontrol-neurriak.

c. Jarraipen-neurriak Azterketaren 5.4 apartatuan jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin identifikatuko dira, eta horiekin bat etorri beharko dute.

d. Ingurumena zaintzeko programak Azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, eta, hala badagokio, Azterketan proposatzen diren efektu garrantzitsuenen (positiboan eta negatiboan) erreferentzia-balioak, baita datuak biltzeko erabiliko diren metodoei eta aldizkakotasunari buruzko proposamen zehatz bat ere, kasu bakoitzean.

Bereziki, eta beste batzuen artean, aurreko apartatuan aipatu diren dokumentuetan eta araudi-erreferentzietan agertzen diren ingurumen-jarraipeneko adierazleak eta neurriak hartuko dira kontuan, eta, bereziki, Plana garatzeko proposamenek eragin handiena izan dezaketen eta Azterketaren 3. apartatuan identifikatu diren ingurune alderdiei dagozkien ingurumen-adierazleak hartuko dira kontuan, hala nola: Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitat moten eraginpeko azalera metatua, habitat horien zatikatzeko-maila, hegazti nekrofagoen populazioen bilakaera, nekazaritza-inguruneari lotutako hegaztiena eta kiropteroena, instalatutako potentzia eta gune babestuen eraginpeko azalera eta abar.

5.6. Ingurumen-laburpena.

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatuko diren deskribatuko da:

- Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola bete diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, Azterketaren 1.1 apartatuan deskribatutakoak.
- Zehaztuko da nola hartu diren kontuan irismen-dokumentua eta eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulta-izapidean bildutako txostenak eta proposamenak.



b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean efektu nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela efektu nabarmen horiek gertatzeko, eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

5.7. Laburpen ez-teknikoa.

Azterketak emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat ere bilduko du, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeki ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

6. Jendaurreko informazioaren izapideak eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, organo sustatzaileak, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen (administrazio publiko ukituei eta interesdunei kontsultatzeari buruzkoaren) 22. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, irismen-dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eraginpeko administrazio publikoekin eta interesdunekin (dokumentu honen eranskinean ageri dira) kontsultatuko du gutxienez Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera.

7. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua arabera, kualifikazio profesionala eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoak duten pertsonak egin beharko dute Azterketa, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du.

Azterketak eta erantsitako azterketek edo dokumentuek pertsona horiek identifikatu beharko dituzte, titulazioa eta, hala badagokio, araututako lanbidea adierazita. Identifikazioak barne hartu beharko ditu izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren edo helburu bererako beste edozein agiriren kodea (elkargokide-zenbakia entregatuz gero, horrek bat etorri behar du elkargo profesional jakin baten erregistroarekin). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Azterketaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira horiek, salbu eta Administrazioak berak frogagarri gisa emandako datuei dagokionez. Apartatu monografikoak baditu, apartatu horien arduradunak identifikatu beharko dira.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organuari, honako hauek barnean hartuta: planaren edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, planaren edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak,



ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena. – Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilak 25.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria

Javier Aguirre Orcajo

ERANSKINA

1. Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikulua izapidetzeko kontsultatutako administrazio publikoen eta interesdunen zerrenda.

Kontsulta egin zaion organoa	Erantzuna
EUSKO JAURLARITZA	
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	X
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza	X
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza.	X
Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza.	X
Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.	X
Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza	X
Uraren Euskal Agentzia, URA.	X
Ihobe. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza.	X
GIPUZKOAKO FORU-ALDUNDIA	
Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiaren Fauna eta Flora Zerbitzua. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.	-
Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiaren Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzua. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.	-
Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua.	X
Lan Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua.	-
Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.	-
Kulturako Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirola Departamentua.	X
Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia. Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentua.	-
BIZKAIKO FORU-ALDUNDIA	



Kontsulta egin zaion organoa	Erantzuna
Kulturako Zuzendaritza Nagusia. Euskara, Kultura eta Kirola Saila.	X
Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko Natura Ondarearen Zerbitzua. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila.	X
Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziorako atala. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila.	X
Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila.	X
Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia. Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Saila.	X
ARABAKO FORU-ALDUNDIA	
Natura Ondarearen Zerbitzua. Ingurumen eta Hirigintzako Zuzendaritza. Hirigintza eta Ingurumen Politika Saila.	X
Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzua. Ingurumen eta Hirigintzako Zuzendaritza. Hirigintza eta Ingurumen Politika Saila.	X
Nekazaritza Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.	X
Kultura eta Kirola Saileko Kultura Zuzendaritza.	X
ESTATUKO ERAKUNDEAK	
Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, Uraren Euskal Agentziaren bitartez (URA).	-
EAEko Kosten Mugaketa (Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioa).	X
Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiko Itsasoa Babesteko Zuzendariordetza Nagusia (Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa).	X
Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Biodibertsitate, Baso eta Desertifikazio Zuzendaritza Nagusia.	-
TOKI-ADMINISTRAZIOAK	
EUDEL – Euskadiko Udalen Elkarte (Planaren eraginpean dauden Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerriak).	-
BESTE ERAKUNDE BATZUK	
Landareen Biologia eta Ekologia Saila. Zientzia eta Teknologia Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV).	-
Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Saila, Zientzia eta Teknologia Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV).	-
INTERESDUNAK	

Kontsulta egin zaion organoa	Erantzuna
Ekologistak Martxan.	X
Eguzki (Eguzkizaleak) elkarte.	-
Itsas Enara Ornitologia Elkarte	-
Haritzalde.	-
GADEN, Natura Defendatzeko eta Ikertzeko Arabako Taldea.	-
Medioambiental Izate Ingurugiroaren Taldea.	-
Hontza Natura Elkarte	-
GAIA talde ekologista	-
Asociación Instituto Alavés de la Naturaleza-Arabako Natur Institutua IAN-ANI	X
Aranzadi Zientzia Elkarte	-
SEO - BIRDLIFE (Euskadiko Ordezkaritza)	-

2. Egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-analisi laburra.

Jarraian laburbiltzen da eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenetan bildutako ingurumen-alderdi garrantzitsuenak:

2.1. Planaren deskribapenari, plangintzaren helburuei eta dauden plan eta programekin duen erlazioari dagokionez.

- LPSk bere zehaztapenetan klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko 7/2021 Legean jasotako ingurumen-helburuak, eta, bereziki, 21.2 artikuluan adierazitakoak jaso behar ditu.
- Energia berriztagarriak lortzeko helburuei dagokienez, kontuan hartu behar da txikiagoak diren, baina haien lurralde- eta batuketa-banaketan baliabidea oparo eman dezaketen instalazioetako ekoizpen-aurreikuspena. LPSk lurraldean eskala txikiagoko instalazioak, hala nola instalazio eolikoak eta fotovoltaiakoak, kokatzeari buruzko zehaztapenak sartu beharko lituzke hirigintza-plangintzan aplikatzeko; adibide gisa, honako hauek aipa daitezke: 2 eta 4 aerosorgailu arteko instalazio eolikoak edo HDEn aintzat hartzen den azaleratik beherako azalera duten eguzki-baratzeak ezartzea, dokumentu horretan 10 ha-tik gorako azalera duten instalazioak bakarrik jasotzen baitira. Ildo horretan, Azterketak zehaztapenak jaso behar ditu LPSn sartzeko, hedadura txikiagoko instalazio fotovoltaiako edo eoliko mota horiek har ditzaketen guneei, baldintzei eta gehieneko azalerei dagokienez. Horri dagokionez kontuan hartu behar den irizpide gisa, EAEko Ingurumen Administrazioari buruzko Legeak zenbait muga ezartzen ditu LPSn kontuan hartu beharko liratekeen proiektu fotovoltaiako edo eoliko txikiagoen tipologia horren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko. Horregatik, Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreikuspenekin bat datorren muga txikiago bat ezartzeko aukera baloratzea proposatzen da.
- Energia berriztagarrien instalazioak lurzoru antropizatuetan eta eraldatuetan lehenetsi behar dira, hau da, aparkalekuetan, industrialdeetan, abandonatutako industrialdeetan, berreskuratzen ari diren zabortegetan, erauzketa-jardueren eraginpeko eremuetan, errepideetan, trenbideetan, eta, oro har, hiri-lurzoru edo industria-lurzoru finkatuetan, ingurumen-baliorik gabeko lurzoru urbanizagarrietan edo urbanizaezinetan, ingurumen-baliorik gabeko ur geruza artifizialen, etab. Eraikinetako teilatuetan autokontsumoa sustatu behar da.

Ildo horretan, LPSk zehaztapenak eta jarraibideak jaso behar ditu, hirigintza-plangintzan aintzat hartzeko, lehendik dauden estalkietan eta lurzoru naturaletik kanpoko instalazioetan energia fotovoltaiakoa ezartzeari dagokionez. Baita energia minieolikoa ezartzeko ere.
- Energia berriztagarrien instalazioak kontsumogune handietatik gertu kokatzea.
- Dauden planak edo programak identifikatzeari dagokionez. Eguneratu egin behar dira LPSren Aurrerapenean eta HDEn aipatutako errepideen plan sektorial batzuei buruzko erreferentziak: Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra (EAEEPO), maiatzaren 19ko 63/2020 Dekretuaren bidez onartu zena eta gaur egun indarrean dagoena, eta Bizkaiko Errepideen II. Lurralde-plan Sektoriala, 2023. urtean indarrean jartzea aurreikusita dagoena. Jabari publikoko eremuetarako, zortasun-eremuetarako eta eragin-eremuetarako ezartzen dituzten jabetza-mugak kontuan hartu behar dira Energia Berriztagarrien LPSn.
- Biomatatik abiatuta energia ekoizteari dagokionez, gogoeta hauek egin dira:
 - Eskala handiko biomasa-instalazioak lurzoru urbanizaezinean bateragarriak diren erabileretatik kanpo uztea. Beste txosten batzuek instalazio horiek industria-instalazio zaharkitu edo abandonatuetan kokatzearen alde egin dute, produkzio-lurzoru okupatzea saihestuz.
 - Gainera, garrantzitsutzat jotzen da baliabidearen kudeaketa ezin hobea egitea eta aldi berean baso autoktonoak eta epe luzeko lehengaia zaintzea bateragarri egingo duten irizpideak ezartzea.

- Alde horretatik, beharrezkotzat jotzen da, halaber, lurraldearen azterketa bat egitea, erabilera aldatuz biomasaren aprobetxamendura bideratu daitezkeen lurzoru erabilgarrien arabera, egindako erabilera-aldaketaren ondorioz natura-ondarean eragina paira dezaketen eremu optimoak zehazte aldera.
- Bestalde, autokontsumoa eta baso-biomasaren eskala txikiko ekoizpena bultzatu eta sustatzearen alde egin da, horrela, mendi publikoen jabe diren toki-erakundeei beren baso-baliabideen kudeaketa egitea eta balioa handitzea errazten zaie.
- Energia minihidraulikoari dagokionez, iturri horretatik sortutako potentziaren errendimendu energetikoa eskasa dela eta energia horrek ibai-ondare naturalean (habitatak eta espezieak, bisoi europarra, karramarro autoktonoa eta anfibiok, esaterako) zer ondorio eragiten dituen kontuan hartuta, uste dugu aukerarik hoberena energia minihidraulikoari lotutako potentzialaren ordez, bereziki «ur lasterreko» zentraletakoa, beste mota bateko instalazioak jartzea dela, eta, beraz, ibai-faunaren gaineko kalteak saihesteko neurri bideragarriak ez dutenak ixtearen alde egiten dugu, batez ere Natura 2000 Sarean eta bisoiaren interes bereziko eremuetan. «Urtegi-oinaldeko» instalazioetan, ur-gastua berrindartzea edo handitzea aukeratu ordez, instalazio horien sortze-efizientzia eta karga-galeren efizientzia hobetu beharko lirateke. Argitu beharko da planak energia minihidraulikoko instalazio berriak baztertzeko dituen ala sustatzen dituen.

2.2. Alternatiben azterketari dagokionez:

- Energia berriztagarriak garatzeko eredia ordezkatzeko alternatibak kontuan hartzea proposatzen da; horretarako, komunitate-titulartasuneko ekimenak bultzatu behar dira, baita irabazi pribatuaren gainetik tokiko ekonomiek parte hartzea eta enpresa sustatzaileen dibertsifikazioa ere, proiektu guztiek beren instalazioa abian jarriko duten lursailen jabeekin gutxienez akordioak izatea bermatuz; horrez gain, baldintza-irizpideak txertatu behar dira, biodibertsitatean eta populazioetan ahalik eta eragin txikiena izango dutela bermatzeko. Era berean, energia-komunitateen eta tamaina txikiko proiektuen enkantean sartzeko erraztuko duten arauak txertatu behar direla uste da, eta kasu horietan bakarrik sarera sartzeko eta sarera konektatzeko baldintzak salbuetsita geratu beharko luke. Enkanteko energiaren % 50 gutxienez 10 MW-eko baino gutxiagoko proiektuetara bideratu beharko litzateke.
- Alternatiben azterketan kontuan hartzea lehendik dauden parke eoliko berrindartzea aukeratzeko alternatiba baztertzeko ez duen alternatiba gisa, parke eoliko berriak instalatzea saihesteko, neurri batean behintzat.
- Azterketak identifikatu diren eremu optimo garbiak alderatu eta sailkatu behar ditu, haien harrera-ahalmenaren eta ingurumen-egokitasunaren arabera, hainbat parametro aintzat hartuta, hala nola paisaia, abifauna, kiropteroak eta abar.

Azterketa hori aztertutako ingurumen-faktore nagusiei buruzko konparazio-taula gisa planteatu daiteke, kokaleku bakoitza ingurumen-inpaktuaren arabera sailkatzeko edo kategorizatzen.

- Parke eoliko gaur egungo kokalekuak bazterketa-eremutzat hartzen dira. Aerosorgailuen bizitza baliagarria kontuan hartuta, Oizko eta Elgeako parke eoliko bizitza baliagarria agortzearekin egon daiteke; horregatik, eskatzen da LPSk balora ditzala kokaleku horietarako dauden alternatibak: parkea berrindartzea, zati bat eraistea, osorik eraistea eta abar, eta Planaren zehaztapenetan irizpideak txertatzea okupatutako lursailen balizko eraispena egiteko eta bertako ingurumena leheneratzeko.

2.3. Ingurumen-karakterizazioari, ingurumen-alderdi garrantzitsuei eta proposatutako zonakatzeari dagokienez (irizpideak):

- Lurraldearen ingurumen-zonakatzea ezartzeko ingurumen-irizpideei dagokienez, ez da egokitzat jotzen «*lekuaren berezko balioen gaineko ondorioen ebaluazio baten baldintzapean*» ingurumen-irizpidea ezartzea, irizpide hori ingurumen-ebaluazioan, oro har, jada ezarrita dagoen lege-betekizun bat baita.
- Hezeguneei dagokienez, Uraren Euskal Agentziak beharrezkotzat jotzen du egindako zonakatzea berrikustea; izan ere, hainbat guneri, II. multzoko hezeguneei, adibidez, itxuraz kontraesankorrak diren zonakatzek aplikatu zaizkie. Eta zonakatzeari dagokionez, EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurralde-plan Sektorialaren antolamendu-kategorietako irizpide sektorialak lehorreko ingurune eta itsasadarren ertzeko kostaldeko ertzei buruzkoak baino ez dira, eta erabilera onargarriak EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze LPSn xedatutakoaren arabera arautuko dira. Era berean, Ibaien eta Erreken LPS lurralde-ereduari aplikatzeko garaian akats batzuk atzeman dira, eta, beraz, eduki horiek berrikusi egin beharko dira.
- Proposatzen da Natura 2000 Sarea eta gainerako naturagune babestuak, baita biotopoak ere, eta babes-eremu periferikoak «*bazterketa-eremutzat*» hartzea LPSk zonakatutako industria-instalazio berriztagarri guztietarako. Bazterketa hori lehendik dauden naturagune babestuei nahiz etorkizunean izendatzen direnei aplikatuko litzaieke eta izapidetzen diren lehen unetik. Ildo horretan, Baliabide Naturalak Antolatze Plana hasteko agindua duten bi guneren egoera nabarmendu da: Uribe-Kosta-Butroe ingurua (2012ko irailaren 25eko EHAA) eta Gasteizko mendiak.

Alderdi horiei eutsiz, txosten batzuen arabera beharrezkoa da energia berriztagarrien instalazioek bazterketa-eremuen inguruan sortutako eraginak, bereziki energia eolikoari dagokionez, arintzeko buffer bat ezartzea. Horri buruz eskatzen da irismen-dokumentuaren zehaztapenen artean bazterketa-eremuen inguruko moteltze-gune hori defini dadila sartzea.

Beste txosten batzuen arabera, aprobetxamendu eolikoa ez diren berriztagarrien aprobetxamenduak baztertu egin dira Natura 2000 guneak kudeatzeko tresnetako batzuetan, eta hori kontuan hartu behar da.

- Fauna- eta flora-espezie mehatxatuei dagokienez, beharrezkotzat jotzen da hasierako dokumentu estrategikoan zehaztutako gunez gain, bazterketa-eremu gisa sartzea flora- edo fauna-espezie mehatxatuak hedatzeko interes bereziko eremuak, Espezie mehatxatuen EAEko Katalogoan sartuta daudenak (kasuan kasuko kudeaketa-planetan definitutako interes bereziko eremu guztiak barne hartuta) ez ezik, «*EAEko flora baskularraren zerrenda gorrian dagoen flora berreskuratzeko planetan*» identifikatutako babes-eremuak ere; baita flora-espezie mehatxatu kartografiatuen kokaleku guztiak ere gutxienez (geoEuskadiren bidez eskuragarri).
- Era berean, bazterketa-eremuak izan behar dute Batasunaren intereseko habitatak dituzten eremuak (92/43/EEE Zuzentarauaren I. eranskina), bereziki lehentasunezko habitatak, Natura 2000 Sarearen barrukoak edo kanpokoak, eta Eskualde Intereseko Habitatak (eskuragarri daude EUNIS habitat-kartografian, 2019. urtea, geoEuskadi).
- Uholde-arriskuari dagokionez, Uraren Euskal Agentziak beharrezkotzat jotzen du EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze LPSn eta Kantauri Ekialdeko eta Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoetan xedatutakoa aplikatuz ezarritako zonakatzea berrikustea. Ildo horretan, uholde-arriskuari buruzko araudia aplikatuz bideragarritasun txikia duenez, mota horretako energiak sortzeko beharrezkoak diren instalazioen ezaugarriak kontuan hartuta, proposatzen da bazterketa-eremua 100 urteko errepikatze-denborako uraldien ondorioz urpean gera daitekeen eremura zabaltzea, instalazio fotovoltaikoen kasuan izan ezik, horiek baldintzatuta egongo baitira (Uraren Euskal Agentziaren txostenean jasotzen dira uholde-arriskuko eremuetan dauden parke fotovoltaikoen proiektuei aplikatzen zaizkien baldintzak). Uholde-arriskuari buruzko azterketarik ez dagoen lekuetan, azterketa hidrauliko espezifikoa egitea kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsu bat da, horiek izapidetu eta



ondoren ezartzeko. Beraz, iradokitzen da baldintza hori zonakatzearen berrikuspenean jasotzea.

- LAGetan eta lurralde historikoetan definitutako azpiegitura berdea kontuan hartzea energia berriztagarriak ezartzeko ereduaren definizioan eta zonakatzean, eta eremu horietan, gutxienez, LPSn jasota dagoen zonakatzearen laburpen-taularen «C2» (iragazkortasuna bermatzeko baldintzak) baldintza aplikatzea.

Beste txosten batzuetan, azpiegitura berdearen balio funtzioanitz handieneko guneak identifikatzea eta bazterketa-eremutzat hartzea eskatzen da, ematen dituzten zerbitzu guztiak kontuan hartuta, bereziki kultura-, aisialdi- eta gozamen-balioak eta natura-balioak, konektagarritasun ekologikoa barne; gainera, modu zehatzagoan txertatu behar da LPSren garapen-aurreikuspenek paisaiaren gainean duten eraginaren balorazioa, EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoaren katalogoa kontuan hartuz eta Paisaiari buruzko Europako Hitzarmeneko zehaztapenak txertatuz.

Beste erakunde batzuek azpiegitura berdea, EAEko korridore ekologiko guztiak barne hartzen dituen, energia berriztagarriak garatzeko eremuetatik kanpo uztearen alde egiten dute zuzenean.

Konektagarritasun ekologikoari dagokionez: lurreko eta uretako faunarentzako korridoreak ez ezik, aireko korridoreak ere kontuan hartu behar dira.

- Onura Publikoko Mendiak (OPM) kontuan hartu behar dira, OPMko luberritzei aipamen berezia eginez, energia eoliko eta fotovoltaikorako eremu optimoak definitzeko ingurumen-irizpide estrategikoen artean. Halaber, aipamen berezia egiten zaie Arabako Errioxako basoak leheneratzeko partzuergoei, eskualde horretan kontserbatzen diren baso-lerkune urriak mantentzeko eta leheneratzeko duten zalantzarik gabeko balioa dela eta, batez ere Guardiako Eremu Funtzionaleko 2. mailako kokaleku eolikoetarako.
- Ekoizten ari diren edo emankorrak diren nekazaritza-lurrak energia berriztagarriaren instalaziotik kanpo geratu beharko lirateke erabat, autokontsumorako erabiltzen badira izan ezik.
- Baso-biomasaren aprobetxamendurako zonakatze-irizpide batzuk ezartzea (eremu optimo garbiak, eremu baztertuak eta lurraldearen gainerako eremua).
- Garapen eoliko industrialei dagokienez, bazterketa-eremutzat hartu behar dira Hegaztiak eta Biodibertsitatea Kontserbatzeko Eremu Garrantzitsuak (IBAk).
- Bazterketa-eremutzat hartu behar dira, halaber, katalogatutako espezieen kudeaketa-planetak zehaztapenekin, bereziki EAEko hegazti nekrofagoen eta Bonelli arranoaren kudeaketa-planekoekin bateraezinak diren eremuak; izan ere, plan horiek mugak ezartzen dituzte sai zuriarentzako eta ugatzentzako eta Bonelli arranoarentzako eremu kritikoen inguruko proiektuak eta jarduketak garatzeko eta eremu kritiko horien 10 km-ko inguruan parke eolikoaren proiektu berriak ezartzea saihesteko. Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzak sai zuriarentzako eremu horiek irudikatzen dituen shape geruza bat aurkeztu du bere txostenarekin. Era berean, uste dute itsasertzeko hegazti babestuen biziraupenerako ez dela komenigarria itsas-lehorreko jabari publikoaren mugaketatik gutxienez kilometro bateko tartean aerosorgailuak jartzea, portu-eremuetan izan ezik.
- Beste erakunde batzuk bazterketa hori Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren eta SEO/Birdlife Elkartearen «Migra» proiektuan inbentariatutako eremuetara zabaltzearen alde agertu dira.
- Euskal Autonomia Erkidegoko haitzuloetan eta eraikinetan bizi diren kiropteroak kudeatzeko planak, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek sinatuak, bazterketa-irizpideak ezartzeko garaian kontuan hartu behar diren zehaztapenak eta intereseko eremuak proposatzen ditu.
- Lurreko instalazio eolikoak ezartzeko identifikatutako «*eremu optimo garbiei*» dagokienez:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostenean honako hau jartzen da agerian:
 - 3 antolamendu-mailen planteamenduan gainjartzeak gertatzen dira azpiegitura berdearen biodibertsitate-erreserbekin, baita «intereseko beste leku batzuk» eta «korridore ekologikoak» izenekoekin ere, LAGen azpiegitura berdearen barruan.
 - Beste proposamen batzuk bat datoz Uribe-Kosta-Butroeko Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana hasteko Aginduan jasotako eremuekin, Meatzaldeko biotopoaren ertzean bertan (haren araudiak parke eolikoak debekatzen ditu); eta Leitzarango Biotopoaren Inguruko Babes Aldearen ertzean.
 - 2P mailan Arabako Errioxa ia osoa sartzten da, baita energia fotovoltaikorako eremu optimo garbiak ere, horiek kontserbazio-arazoak ekar baititzakete nekazaritza-inguruneei lotutako hegaztientzat, baita usapalarentzat ere (Espainiako nekazaritza- eta estepa-inguruneei lotutako hegazti mehatxatuak kontserbatzeko estrategiaren zirriborro-dokumentua erantsi zaio txostenari).

Azaldutakoagatik, Zuzendaritza horrek beharrezkotzat jotzen du bai energia eolikoko eremu optimo garbien barruan gainjartzeak dituzten eremuak, bai Arabako Errioxako energia fotovoltaikoko eremu optimo garbiak berrikustea, eremu «baldintzatu» gisa sartzeko «Lurraldearen gainerako eremuak» kategoriaren barruan.
 - Nabarmendu behar da Arabako Foru Aldundiko (AFA) Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren txostenak Lurralde Historiko horretan proposatutako aerosorgailu-lerroen aurretiazko balorazioa jasotzen duela, besteak beste. Balorazio horren arabera, Aurrerapen Dokumentuan proposatutako lerro batzuk ez dira onartu behar, osorik edo zati batean, ingurumen-inpaktu handia dutelako; beste kasu batzuetan, berriz, ingurumen-azterketa estrategikoan azterketa xehatua egitea proposatzen da, lerro jakin baten barruan ingurumenaren aldetik bideragarriak diren tarteak zehazteko eta inpaktu handiena eragiten dutenak baztertzeko. Arabako Errioxan egon daitezkeen kokalekuen kasuan, AFAn txostenak adierazten du lerro zehatzak zehaztu behar direla, ingurumen-organoei eta nekazaritzaren arloan, arlo hidraulikoan edo kultura-ondarearen arloan eskumena duten sektore-organoei baloratzeko aukera izan ditzaten.
 - Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko (BFA) Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren txostenaren arabera, LPSren Aurrerapenean jasotzen diren bazterketa-irizpideak aplikatuz, garapen eolikorako bateraezinak izango lirateke LPSren Aurrerapen Dokumentuan hautatutako garapen batzuk, eta zehaztu egiten du zeintzuk izango liratekeen garapen horiek.
 - Beste erakunde batzuek ere iritzi bera dute (Ekologistak Martxan Bizkaia) proposatutako lerro batzuei buruz.
 - LPSk energia berriztagarriak sortzeko industria-instalazio bat osatzen duten elementu guztien eragina aztertu behar du, gutxienez hurbilketa bat egin behar du eremu optimo garbi bakoitzerako. Hainbat alderdi baloratu behar dira, hala nola beharrezkoak diren sarbideen luzera, ebakuazio-sareetara dagoen distantzia eta abar.
- Instalazio fotovoltaikoak ezartzeko identifikatutako «*eremu optimo garbiei*» dagokienez: Azterketak zehatz-mehatz aztertu beharko ditu eguzki-energia fotovoltaikoaren garapenak nekazaritza- eta paisaia-balio handiko lurzoruetan dituen ondorioak, batez ere Araban, eta zehazkiago Arabako hegoaldeko eskualdeetan, hala nola Arabako Errioxan, mahastietan, patata, erremolatxa eta oleaginosoen laboreekin txandakatzen diren neguko zereal-laborantzetan eta balio handiko paisaian (Ardoaren eta Mahastien Paisaia Kulturala) eraginez. Aurrerapen Dokumentuaren planteamendua, horri dagokionez, ez dator bat LAGetan (*Ekonomia Zirkularraren arloko gidalerroak: lurzorua, baliabide gisa*) eta lurralde-plangintza partzialean ezarritakoarekin; bertan, dagoeneko artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera

lehenetsi eta optimizatzearen alde egiten da (lurzoru kutsatuak, zabortege itxiak, komunikazio-bideen ingurune degradatuak, etab.).

Iritzi horiekin bat datoz Arabako Foru Aldundiko (AFA) Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren eta Nekazaritza Zuzendaritzaren txostenak. Txosten horiek, besteak beste, Araban parke fotovoltaikoak ezartzeko aintzat hartutako eremuen aurretiazko balorazioa jasotzen dute, eta ondorioztatzen dute sakonki aztertu behar dela Aurrerapen Dokumentuan jasotako eremu optimo garbien planteamendua, bai Arabako Lautadan, bai Arabako Bailaretan, eta, bereziki, Arabako Errioxan, nekazaritza- eta paisaia-balio handiko lurzoruetan (mahasti-eremuak barne) eta Natura 2000 Sareko guneeetatik, lotura-intereseko guneeetatik eta herrietatik hurbil daudelako ahulak diren beste eremu batzuetan eragin nabarmenak izatea mugatzeko. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSren sailkapenaren arabera, hain emankorrak ez diren eremuak okupatzeari lehentasuna ematea proposatzen da.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzaren ustez, ez da egokia landa-lurzoruaren erabilerari lehentasuna ematea, Lurralde Historiko horretan behintzat, lurralde horretan nekazaritza-lurrak urriak baitira eta industria-azalera handia. Landa-lurzoruaren lehentasuna nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak garatzea izango da. Bestalde, adierazten da badirela zenbait putzu artifizial (material iragazgaitzez estaliak) izaera industrialeko eguzki-parke flotatzaileak ezartzeko leku gisa azter litezkeenak (Argañeda eta La Cerroja, Karrantzan; Zulueta, Amoroton; Gartxeta putzua, Urduñan; Enagas putzua, Bermeon).

- «Eremu optimo garbien» ingurumen-karakterizazioari dagokionez: Hainbat txostenetan adierazten denez, LPSk definitutako eremu optimo garbietan eragina duten ingurumen-baldintzatzaileen azterketa egin behar da, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean aipatutako aldagaiak kontuan hartuta, eta azterketa hori berariaz eta xeheki egin behar da energia tipologia bakoitzerako eremu optimo garbietan, ingurumen-elementu edo -faktore garrantzitsuenak kontuan hartuta, eremu bakoitzaren ingurumen-egokitasuna eta harrera-gaitasuna ebaluatzeko. Ildo horretan:
 - Energia eolikoak eta fotovoltaikoak garatzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak adierazi du Zuzendaritza horrek GIS tresna bat prestatu duela energia berriztagarrien (eolikoa eta fotovoltaikoa) garapena ez ezik, horiek EAEko Natura Ondarea kontserbatzearekiko bateragarritasuna ere aztertzeko, «*Laguntza teknikoa energia eoliko eta fotovoltaikoen garapena aztertzeko eta lan osagarriak egiteko, EAEko 2020-2021 aldiko Natura Ondarearen kontserbazioarekin bat etor daitezela*» izeneko lanaren barnean.

Zuzendaritza horrek beharrezkotzat jotzen du aipatutako laneko *1. blokea*, «*Parke eoliko eta fotovoltaikoen eragindako inpaktuak eta ingurumen-zonakatzaren proposamena*» izeneko *6. eta 7. apartatuak*– eta *2. blokea*, «*Ingurumen-inpaktuaren azterlanen edukia*» izeneko, izapidetzen ari den LPSren dokumentazioan sar daitezela, lurralde-eredu sektoriala eratzeko oinarri gisa, eta dagokion ingurumen-ebaluazio estrategikoan ere sar daitezela. LPSren mapak eta GIS tresna horren sentikortasun-mapak gurutzatzen badira, energia berriztagarri eolikoa eta fotovoltaikoa hartzeko ahalmen handiena duten guneak hobeto identifikatu ahal izango dira a priori.
- Beste txosten batzuetan aipatzen da, halaber, azterketa horrek honako alderdi hauetan sakondu behar duela:
 - Batasunaren intereseko habitatek, florak eta landarediak jasaten duten eragina eskala egokia eta egungo egoerara eguneratuta dagoen informazio kartografikoa erabiliz aztertu behar da. Horregatik, ingurumen-azterketa estrategikoak landare-kartografia eskala egokian sartzea eskatzen da, landaredi-orbanak eta horien mugak zehaztasunez identifikatu ahal izateko, LPSk aldagai horretan dituen efektuak baloratu ahal izateko.

- Lurreko energia eolikoa ezartzeko eremu optimo garbiei dagokienez: Garrantzitsutzat jotzen da honako alderdi hauetan sakontzea: paisaia, ahultasuna, ikusgaitasuna, paisaiaren kalitate-galera eta abar aztertzea eta horien karakterizazioa egitea, baita katalogatuta dauden eta kudeaketa-plana eta, zehazki, hegazti nekrofagoen kudeaketa-plana indarrean duten fauna- eta flora-espezieen gaineko eraginak aztertzea eta karakterizazioa egitea ere. Hegaztien eta kiropteroen populazioen eta horiek mugitzen eta sakabanatzen diren ibilbideen karakterizazioa egitea, ornodun hegalarientzako gunek gatazkatsuenak identifikatzea. Ingurumen-azterketa estrategikoak zehatz-mehatz baloratu beharko du LPSren xede diren instalazioek konektagarritasun ekologikoan duten hesi-efektua.

Parke eoliko baten azpiegitura osagarriari dagokienez (sarbideak, zerbitzu-bideak, hesiak, ebakuazio-lineak, azpiestazioak), LPSk horiei buruzko irizpide esplizituak hartu behar ditu, inpaktuen azterketak kontuan har ditzan ingurumenean eragina duen proiektu baten ekintza posible guztiak, eta haren ingurumen-inpaktuak behar bezala balora daitezten.

- Itsas energia ezartzeko eremu optimo garbiei dagokienez: Kostaldeko habitaten eta biodibertsitatearen karakterizazioa egitea (espezie garrantzitsuenen habitaten eta populazioen balioa, berezitasuna, ahultasuna...). Paisaiaren, ahultasunaren, ikusgaitasunaren, paisaiaren kalitate-galeraren eta abarren azterketa eta karakterizazioa. Gainera, gogorarazten da EAERI transferitzen zaion portuko jabari publikoan kokatutako portu-azpiegiturretan egiten den edozein jarduketa portu-arloan eskumena duen organoak onartu beharko duela alde aurretik; proiektu horiek bat etorri beharko dute uhinen energiaren instalazioa ezarri nahi den portuko hirigintza-plangintzarekin.

Bestalde, Kostaldei buruzko Legearen eta hura garatzeko araudiaren aplikazio-eremua osatzen duten gunetan eragina duten jarduketei dagokienez, araudi horretatik eratorzen diren betebeharrak gogorarazten dira, eta, besteak beste, goi-tentsioko instalazio elektrikoak itsas-lehorreko jabari publikoan ezartzea edo goi-tentsioko linea elektrikoak aireko linea zortasun-eremuan ezartzea debekatzea. Bestalde, LPSren planoetan, itsas-lehorreko jabari publikoaren linearen eta horren babes-eremuaren mugatze-lerroak adierazi behar dira.

- Energia fotovoltaikoa ezartzeko eremu optimo garbiei dagokienez: Nekazaritza-balio handiko lurzoruan izandako eraginak (Nekazaritza eta Basozaintzako LPSren Balio Estrategiko Handiko kategoria). Lehendik dauden nekazaritzako baliabideen eta ustategien inbentarioa eta karakterizazioa. Konektagarritasun ekologikoari eta paisaiari buruzko alderdien azterketa eta karakterizazioa: ahultasuna, ikusgaitasuna, paisaiaren kalitate-galera...

Gainera, horrelako gunetarako, azterketak honako hauek gehituko ditu: Paisaia-integratioari buruzko azterketa eta 10 ha-tik gorako azalera duten instalazio fotovoltaiko guztietarako konektagarritasun ekologikoari buruzko aurretiazko azterketa, eta ez soilik 100 ha-tik gorakoei buruzkoa. Horrez gain, honako alderdi hauek ebaluatu beharko dira: higadura-arriskua, ur-kontsumoa «bero-uharte» efektuak habitat naturaletan, faunan eta pertsonengan duen eragina kuantifikatzea; sute-arriskua, itsualdi-arriskua..., baita lehen mailako erabilerak emateko asmoz lurrak okupatzearen ondorioz zerbitzu ekosistemikoetan eragindako inpaktuak ere, bai karbono-metaketari dagokionez, bai elikagaien hornikuntzari dagokionez.

Era berean, beharrezkotzat jotzen da instalazio fotovoltaikoak ezartzeko eremuetan baimendu daitezkeen erabileren araubidea zabaltzea, biodibertsitatea indartzea eta gune interstizialetan, artzaintzan edo aprobetxamendu agrovoltaikoetan habitatak leheneratzea sustatzen duten erabilerak barne.

- Energia biomasatik sortzeari dagokionez, hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, erauzketa-fasea da ingurumen-eragin handiena duen fasea, eta alderdi hori sakonago aztertu beharko litzateke. LPSk kontuan hartu beharko luke biomasa erauzteko mugak ezarri behar

direla, biomasaren bolumenari eta, batez ere, jatorriari dagokienez, ekosistemen funtzionamenduari kalterik ez egiteko eta C-ren gordailua bermatzeko lurzoruan eta egurrean.

- Ingurumen-egoeraren deskribapenari eta inbentarioari dagokionez, Planoak izeneko dokumentuan informazio hau sartzea proposatzen da:
 - EAEko eguzki-baliabidearen mapa, eskalan egindakoa, (Aurrekari gisa hau aipatzen da: «Euskal Autonomia Erkidegoan eguzki-erradiazioa». EEE, 1998).
 - Egungo energia-kontsumoen mapa.
 - Eraikinen energia-efizientziako mapak.
 - Elektrizitatea garraiatzeko eta banatzeko lineen eta horiei atxikitako instalazioen kokapen-mapak.
 - LPSren eta Azterketaren planoetan, eskala egokian grafiatu beharko dira itsas-lehorreko jabari publikoaren linearen, bide-zortasunaren, babes-zortasunaren eta eragin-eremuaren mugatze-lerroak.
- Paisaia: oso alderdi garrantzitsutzat hartzen da, Azterketak behar bezala landu behar duena Plana garatzeko egin nahi diren jarduketak guztietan, bere balorazioa Planaren ondoriozko banako proiektuetara bideratu gabe.
- Kultura-ondareari dagokionez:
 - Kultura-ondarearen elementuak LPSren eremuan identifikatzeko, Azterketan kontuan hartu behar diren informazio-iturriak adierazi dira (zerrendak, katalogoak, datu-baseak).
 - Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legeak Arkeologia Ondareari buruz ezartzen dituen betebeharrak eta baldintzak, energia berriztagarriak instalatzeko egingo den jarduketa bakoitzean nahitaez bete beharko direnak, adierazi dira.
 - Kultura-intereseko ondasunak energia berriztagarriaren aprobetxamendutik kanpo utzitako eremutzat hartzea berariaz jaso behar da LPSren zehaztapenetan.
 - Gomendatzen da bazterketa-eremu horietan kultura-ondasun izendatzeko proposatutako elementu arkitektonikoak eta arkeologikoak sartzea.
 - Estalkiko eguzki-energia fotovoltaikoari eta eguzki-energia termikoari dagokienez: Kultura-ondasuntzat hartzen diren eraikinetan eta horien inguruan estalkiko instalazio fotovoltaikoak eta eguzki-energia termikoko instalazioak ezartzeko kultura-ondareari buruzko araudiaren ondoriozko mugak nabarmendu dira. Monumentu-multzoaren mugaketan sartutako eraikin guztiak baztertu beharko lirateke.
 - Lurreko eguzki-energia fotovoltaikoari dagokionez:
 - Bazterketa-eremuetan sartu beharko liratekeen kultura-intereseko hainbat elementu identifikatu dira, ustezko zona arkeologikoak barne.
 - Energia aprobetxatzeko, LPSn identifikatu diren eremu optimo garbi batzuek eragina izan dezakete kultura-ondarearen ondasunetan, Donejakue Bidean, adibidez; izan ere, ondasun horien babes-araubidea ez da bateragarria bide-trazadurari eta haien babes-inguruneari eragiten dieten lurreko energia fotovoltaikoko instalazioekin, eta gai hori argitu egin beharko da Planoak izeneko dokumentuan eta Zehaztapenak izenekoan. Aurkitutako desadostasunak zehaztasunez identifikatu dira.
 - Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren Paisaian izandako eraginak: Gogorarazi da 2014an Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren Paisaia kultura-ondasun gisa kalifikatu zela, monumentu-multzoaren kategoriarekin. Eremu horrek azalera zabala hartzen du eta arkitektura- eta arkeologia-ondareko elementuak ditu, baita mahastiaren paisaiari eta mahastizaintza- eta ardogintza-jarduerari berez eta aspalditik lotura duten beste elementu batzuk ere, mugatutako eremuaren zati handi batean

hedatzen diren terrazen eta laborantza-bankuen sistema barne. Monumentu-multzoaren mugaketaren eraginpeko eremuan egin behar diren esku-hartzeak aurrera eramateko, Arabako Foru Aldundiko organo eskudunen baimena beharko da.

- Energia eolikoari dagokionez: Kultura-intereseko hainbat elementu identifikatu dira, bazterketa-eremuetan sartu beharko lirakekeen eta kultura-interes izendatzeko proposatutako ustezko zona arkeologikoak barne. Halaber, zehaztasunez identifikatu dira Donejakue bideari, Bilboko Burdin Hesia eta defentsak kultura-ondasunari, ondare arkeologikoko eta Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren Paisaiako elementu batzuei buruz aurkitutako desadostasun batzuk.

Kultura-ondasun izendatzeko proposamena duten ustezko arkeologia-guneei dagokienez, nahitaez baztertu behar diren eremutat hartzen ez diren arren, kontuan hartu behar da edozein instalazio egin aurretik azterketa arkeologiko bat egin beharko litzatekeela, eta azterketa horren ondorioz, lortutako emaitzen arabera, kultura-ondasun izendatu ahal izango litzateke.

- LPS honetatik etorkizunean sortuko den azpiegitura-proiektu bakoitza sakonago eta banan-banan aztertu beharko da, Kultura Ondarearen alorrean eskumena duen Organoak dagokion txostena egin ahal izateko.
- Itsas energiari dagokionez, ez da zuzeneko eraginik atzeman kultura-ondarean, baina proiektuak aztertu beharko dira kai-muturrak birmoldatu behar izateagatik eta bestelako obra osagarriak egiteagatik izan daitezkeen eraginak baztertzeko.
- Azkenik, I. eranskinaren (*Energia berriztagarriko proiektuak diseinatzeo, gauzatzeko eta ustiatzeko jarraibideak*) edukari dagokionez, zenbait iradokizun egin dira, energia berriztagarrien instalazioak diseinatzean, eraikitzean eta eraistean kultura-ondarea tratatzeko moduari buruz.
- Ingurumen-arriskuei dagokienez: Azterketak zehatz-mehatz aztertu behar du energia eolikoko instalazioek EAEn dauden radar meteorologikoen funtzionamenduan duten eragina. Eragin horiek larriak izan daitezkeenez, beharrezkotzat jotzen da istripu larrien eta hondamendien aurrean proiektuaren kalteberatasuna baldintzatzen edo baztertzen duten irizpideak sartzea, baldin eta berariaz ikusten bada baldintza meteorologikoen zaintza- eta alerta-sareko funtsezko instalazioetan eragina izan dela, LPSk aprobetxamendu berriztagarri eolikoa erabilera onargarritzat jotzen diren eremu optimo garbiak zehaztu aurretik.

Bestalde, adierazi da babes zibileko arriskuak kontuan hartu behar direla LPSren dokumentu adierazgarri eta erreferentzialetan. Zehazki, LPSren Zehaztapenak izeneko dokumentuan, *Ingurumen-inpaktuaren azterketen edukari* buruzko apartatuan, proiektuak istripu larriak edo hondamendiak izateko arriskuen aurrean duen kalteberatasunari buruzko alderdiak jaso eta garatu behar dira. Azterketa horrek gai hauek azpimarratu beharko ditu:

- Istripu larrien edo hondamendien ondorioz proiektua arriskuan jar dezaketen arriskuak ez ezik, proiektua izateagatik larriagotu daitezkeen arriskuak, eta arrisku horiek gutxitzeko hartuko diren neurriak eta irizpideak ere identifikatzea.
- Babes zibileko arriskuei buruzko informazioak Eusko Jaurlaritzak onartutako babes zibileko lurralde-planetako eta plan berezietako aurreikuspenetan jasotako arriskuak bilduko ditu.
- Inpaktuak identifikatu eta balioesten direnean, radar meteorologikoetan izandako eraginari buruzko azterketen emaitzak sartu beharko dira, eta Ingurumen Inpaktuaren Azterketari edo Ingurumen Dokumentuari erantsiko zaizkio.
- Baloratu beharko da jarduera 21/2019 Dekretuak aldatu zuen 277/2010 Dekretuaren, azaroaren 2koaren (zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egiteko) eraginpean ote dagoen. Hala badagokio, Autobabes Plan bat egingo da.



Babes zibileko arrisku hauek identifikatu dira eta horri buruzko informazio kartografikoa eman da: Uholde-arriskua, baso-suteak izateko arriskua, arrisku sismikoak, arrisku teknologikoak (salgai arriskutsuen garraioa, SEVESO III arriskua).

2.4. Ingurumen-efektuei dagokienez

Aurkeztu diren txostenetako batzuek ingurumeneko alderdi batzuk azpimarratu dituzte, hain zuzen ere, energia berriztagarrien garapenaren eragin handiena paira dezaketenak (abifauna, kiropteroak, paisaia, etab.), aurreko lerrokadetan adierazi den bezala. Kasuren batean, azpimarratu da instalazioen efektu sinergikoei buruzko alderdiak landu behar direla (erantsitako azpiegiturak barne) Azterketan, eta EAEn kokatutako proiektuak ez ezik, administrazio-mugak partekatzen dituzten edo lurralde edo eremu bera eraginpean hartzen duten autonomia-erkidegoetan garatzen direnak ere kontuan hartu behar direla.

Era berean, azpimarratu da sakonago aztertu behar direla LPSren 1. eta 2. mailetako kokalekuak OPMn eta horien funtzioen gainean ezartzearen ondorioz izan daitezkeen ingurumen-inpaktuak, erantsitako azpiegitura guztiak kontuan hartuta, hala nola ebakuazio-linea elektrikoak, eta mendi eta baso-lurren multzoetan eragindako efektu sinergikoak eta metatzaileak, bereziki Guardiako Eremu Funtzionalean aurreikusitako 2. mailako kokalekuetan, eta horien funtzioak (babes-funtzioa, paisaia-funtzioa, aisia-funtzioa) gehituta.

2.5. Natura 2000 Sarean izan ditzakeen eraginei buruzko txostena.

Jasotako hainbat txostenek Natura 2000 Sareari egiten diote erreferentzia, eta, kasu batzuetan bat datoz; izan ere, adierazten dute Natura 2000 Sareko guneak energia berriztagarrien proiektuak garatzeko bazterketa-eremutzat hartu behar direla, bai oro har edozein motatako energiaren kasuan, bai bereziki energia eolikoaren kasuan.

Garrantzi handiko alderditzat jotzen da, eta LPS onartzeko fasean landu behar da, ez plan horretatik eratorriko diren proiektuak izapidetzen direnean. Energia berriztagarrien LPSk Natura Sareko guneei buruzko beste plan eta proiektu batzuekin duen efektu zuzena eta zeharkakoa, metatzailea eta sinergikoa jaso behar du; azterketa honek kontuan hartu behar ditu guneen arteko interkonektagarritasuna, korridore ekologikoekiko eta azpiegitura berdearekiko interferentzia, baita kanpoan sortzen diren, baina Natura 2000 Sarearen kontserbazio-helburuetan eragina duten efektuak ere. LPSren aurreikuspenek Natura 2000 Sarearen osotasunean eraginik izango ez dutela bermatzen bada soilik izango da bateragarria LPS Natura 2000 Sarearen kontserbazio-helburuekin.

2.6. Energia-instalazio berriztagarrien proiektuen ingurumen-inpaktuari buruzko azterketek eta ingurumen-dokumentuek izan behar duten edukiari dagokionez (Plana garatzeko jarduketak).

Txostenek inpaktuen identifikazioari eta balorazioari buruzko irizpideak eta zehaztapenak ematen dituzte, Azterketan sartzeko (D eta E apartatuak eta 1. eta 2. eranskinak), hegaztien eta kiropteroen azterketei eska dakizkiekeen eskakizunei eta beste alderdi batzuei dagokienez. Proposamen hauek egin dira (apartatuei buruzko aipamenak HD Eren I. eranskineko apartatuei buruzkoak dira):

- Ingurumen-inbentarioa (C apartatua): Lurreko faunaren lurralde-konektagarritasunean duten efektuak ebaluatu behar dira beste mota batzuetako energia berriztagarrien kasuan (ez bakarrik fotovoltaikoaren kasuan), hala nola energia eolikoaren kasuan eta horiekin lotutako azpiegituren kasuan.
- Ingurumen-inbentarioa (C apartatua): Itsas energiaren proiektuei dagokienez: Kostaldeko habitaten eta biodibertsitatearen karakterizazioa egitea (espezie garrantzitsuenen



habitatzen eta populazioen balioa, berezitasuna eta ahultasuna). Paisaiaren, ahultasunaren, ikusgaitasunaren, paisaiaren kalitate-galeraren eta abarren azterketa eta karakterizazioa.

- Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa (D apartatua): parke eolikoaren kasuan, aerosorgailu bakoitzerako arriskuaren zenbatespena banaka aztertu beharko litzateke.
- Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa (D apartatua): parke eolikoaren kasuan, apartatu argi eta garatu bat, azterketen eta inbentarioen emaitzetan oinarritutako inpaktu-estimazio bat egin/interpretatu/amaitzen duena, sartu behar da. Sustatzaileak pilotzei edo mugimenduei buruzko informazioa adierazi behar du hilkortasun-arriskuan edo lurraldeak uzteko arriskuan.
- Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa (D apartatua): Natura 2000 Sarearen gaineko inpaktuak eta horren kontserbazio-helburuak guneen kanpoaldetik ere etor daitezke, eta, beraz, gune horiek bazterketa-eremutzat hartzeak ez ditu, nahitaez, inpaktu horiek saihesten. Alderdi hori esplizituki aztertu behar da.
- Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa (D apartatua): Natura 2000 Sarearen gaineko eraginaren ebaluazioari buruz aintzat hartutako erreferentziez gain, kontuan hartuko dira, besteak beste, Europako Batzordeak «Garapen eolikoak ezartzeko eta natura kontserbatzeko gomendioei» buruzko jakinarazpenean (2020) formulatutakoak.
- Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa (D apartatua): Ibai-oheneen dragatzeak eta erauzteak dakartzaten jardueretan, erauzteari eta erauzitako materiala gordetzeari buruzko alderdiak eta jarduketa horietatik eratorritako efektuak hartu behar dira kontuan.
- Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa (D apartatua): Zentral hidraulikoaren kasuan, proiektuak konektagarritasun ekologikoan (bilbe urdina) izan ditzakeen efektu kaltegarriak identifikatu, aurreikusi eta arindu beharko dira, eraginpeko tartean dauden arrain-espezieak ez ezik, ingurune urtarrari lotutako beste espezie interesgarri batzuk ere kontuan hartuta (bereziki, espezie mehatxatuak: bisoi europarra, desman piriniotarra, igaraba).
- Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa (D apartatua): Proiektuak istripu larrien eta/edo hondamendi garrantzitsuen aurrean duen kalteberatasunari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak espediente honi buruz emandako txostenean egindako gogoetak hartuko dira kontuan.
- Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak (E apartatua): Aipatutako HD Eren I. eranskinean talkak detektatzeko eta aurreikusteko proposatzen den sistemaren alternatibagisa, lehenik eta behin, kokapen alternatibo bat planteatu behar da, edo eragina sortzen duen aerosorgailua kentzea, eta geldialdi-sistema izango da hartuko den azken neurria.
- I. gehigarria (Abifaunari eta kiropteroei buruzko azterketak). Gogoeta orokorrak (1. apartatua): katalogazioak egiteko, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa ere kontuan hartu beharko litzateke.
- I. gehigarria (Abifaunari eta kiropteroei buruzko azterketak). Gogoeta orokorrak (1. apartatua): adierazten da kalteberatzat eta galtzeko arriskuan dauden espezieetat hartutako harrapari-bikote batek aerosorgailuren batetik kilometro batera baino gutxiagotara habia egiten badu, irrati-jarraipen bidez aztertu beharko da hegazti horiek lurraldeari ematen dioten erabilera. Gaur egun, harrapariak habitatari ematen dioten erabilera aztertzeo hautapen-teknika GPSa da, baina ez dago argi teknika hori exijitu behar den ala ez, gerta biltzeko harrapaketa ezinezkoa edo zaila izatea. Nolanahi ere, mota horretako espezieek habia desberdinak dituzte, txandaka erabiltzen dituzte, erreserba edo lurralde-identitate gisa, eta kilometro bat oso arrisku handiko distantzia da. Azterketak barne hartu beharko ditu gai horiek, eta proiektu bakoitzaren arabera teknologiarik erabilgarri onena erabiltzea proposatuko du.



- 1. gehigarria (Abifaunari eta kiropteroei buruzko azterketak). Abifaunari buruzko azterketen gutxieneko edukia (2. apartatua): espezie bakoitzaren talka-arriskuaren balioespenak aurkeztu beharko dira, zentral eolikoaren kasuan.
- 2. gehigarria (Hegaztien eta kiropteroen gaineko eraginen ingurumen-jarraipena parke eolikoetan): Zaintzari buruzko txostenek, lortutako datuak aurkezteaz gain, datu horiek interpretatu eta kasu bakoitzean neurri zuzentzaileak proposatu beharko dituzte. Era berean, eragiketa-fasean dauden aldizkako azterketak hartu beharko dituzte kontuan lurraldeen eta populazioen bilakaeraren jarraipena egiteko parke eolikoaren inguruko erradio batean.

Halaber, estalkiko panel fotovoltaikoak instalatu aurretik abifaunaren eta kiropteroen prospekzio-neurriak proposatzen dira, edo neurri zuzentzaileak, hala nola panelen diseinua hobetzea, intereseko basa-espezieak bertan bizi daitezen edo kolonizatu ditzaten sustatzeko eta leku horiei lotutako biodibertsitatea handitzeko. Orobat, itxiturak faunarentzako iragazkortasun-irizpideekin diseinatu behar dira.

Zehazki, sustatzaileak energia berriztagarrien proiektu baten ustiapen-fasean egin behar dituen jarraipen-txostenetan kontuan hartu beharreko alderdi batzuk zehaztu dira: sustatzaileak aurkeztutako txosten horrek, bildutako datuak ez ezik, datu horien interpretazioa eta azterketa ere aurkeztu behar ditu; horrez gain, neurri zuzentzaileak/aringarriak proposatu beharko ditu, hala badagokio. Era berean, txosten horiek izapidetzeko administrazio-prozedurari buruzko hainbat gai aipatu dira: *«LPSk argi eta garbi ezarri beharko luke zer ondorio izan behar dituzten zaintzari buruzko txostenek; izan ere, txosten horiek behartzen bada, kudeaketa moldagarriko neurriak ezartzeko prest dagoelako izan behar du»*.